



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko maiatzaren 20a

55. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren gastu arruntei eta inbertsioei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Arartekoari buruzko fiskalizazio txostena, 2002ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (10. or.).
- Iruñeko Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (15. or.).
- Foru Komunitatearen osasun gastuari buruzko aholkularitza txostena, Comptos Ganberak egina (25. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren gastu arruntei eta inbertsioei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak eginiko Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren gastu arruntei eta inbertsioei buruzko fiskalizazio txostena, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren gastu arruntei eta inbertsioei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Helburuak eta norainokoa (2. or.).
 - II. Sarrera (2. or.).
 - III. Ondorioak (5. or.).
 - IV. Egindako lana eta gomendioak (5. or.).
- I. Eranskina. Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren organigrama (10. or.).

I. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

I.1 HELBURUAK

Nafarroako Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2002rako duen fiskalizazio-planaren barruan sartu da "Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren gastu arrunten eta inbertsioen fiskalizazioa".

Lan honekin, Ganberak ondoko helburuak ditu:

- Egiaztatzea 2001eko gastu arrunten eta inbertsioen aurrekontu-betetzeak egozten zaizkion gastu guztiak biltzen dituela.

- Legezketasunaren betetzea egiaztatzea.

- Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak ezarritako barne kontroleko sistemak ebaluatzea; betiere, kasua bada, egoki jotzen diren gomendioak proposatuko dira, haiek hobetzeko.

I.2 Norainokoa

Aurreko helburuak kontuan harturik, lana aplikaturiko administrazio-prozedurak berrikustean zentratu da, eta egoki jo diren antolamenduko, kontabilitateko eta barne kontabilitateko alderdiak aztertu eta ebaluatu dira.

Metodologiari dagokionez, ganbera honek erabili ohi dituen programak aplikatu dira, bere audiotoretza-gidetan biltzen direnak eta Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organoen Koordinazio Batzordeak onartu dituen sektore publikoko audiotoretzari buruzko printzipio eta arauen barruan garatu direnak.

Azterketa lana ekainean, uztailan eta abuztuan egin zuen audiotoretzako talde batek, Comptos Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntzarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiko langileei gure lana egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. SARRERA

Ondokoa da Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren 2000ko eta 2001eko ekitaldietako aurrekontu-betetzea, gastu arruntei eta inbertsioei dagokienez:

2 eta 6 kapituluak, proiektuen arabera

2. kapitulua Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

Proiektuak	Betetzea 2000	Betetzea 2001	% 01 / 00
400 Hezkuntza eta kulturako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	175.769.450	198.926.747	13
410 Hezkuntza maila guztietako eskolatzeko baldintzak hobetzea	3.089.763.188	3.179.999.224	3
420 Lanbide heziketaren garapena	139.018.289	176.212.141	27
421 Hezkuntza eta LH sustatzeko hezkuntza-berrikuntzak	178.623.159	187.799.529	5
422 Araubide bereziko eta teknologia berrietako irakaskuntzak sustatzea	89.348.988	135.331.701	51
430 Euskararen irakaskuntzaren sustapen eta garapena	76.697.693	81.262.586	6
40 Unibertsitate irakaskuntzak eta ikerkuntza	37.684.983		
440 Egungo Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Z. Nagusia		25.614.274	
441 Unibertsitateak eta ikerketa		2.080.571	
442 Hizkuntzaren arloko programazioa, ikerkuntza eta garapena		29.977.418	
60 Hizkuntza Politika	59.384.427		
2. kapitulua, guztira	3.846.290.177	4.017.204.191	4

6. kapitulua Inbertsioak

Proiektuak	Betetzea 2000	Betetzea 2001	% 01 / 00
400 Hezkuntza eta kulturako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	1.939.330	1.758.965	-9
410 Hezkuntza maila guztietako eskolatzeko baldintzak hobetzea	3.838.302.202	2.552.950.656	-33
420 Lanbide heziketaren garapena	34.711.503	23.687.140	-32
421 Hezkuntza eta LH sustatzeko hezkuntza-berrikuntzak	11.425.318	12.107.039	6
422 Araubide bereziko eta teknologia berrietako irakaskuntzak sustatzea	61.104.296	117.233.312	92
440 Egungo Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Z. Nagusia		35.736.521	
441 Unibertsitateak eta ikerketa		182.351.297	
442 Hizkuntzaren arloko programazioa, ikerkuntza eta garapena		17.018.962	
60 Hizkuntza Politika	47.719.241		
6. kapitulua, guztira	3.995.201.890	2.942.843.892	-26

2. kapitulua eta 6. kapitulua, guztira	7.841.492.067	6.960.048.083	-11
--	---------------	---------------	-----

Ikus daitekeen bezala, gastu arrunten kapitalen proiektu horiek aurreko ekitaldiaren aldean ehuneko 4 hazi dira.

Inbertsioek, ordea, ehuneko 26 egin dute behera, aurreko ekitaldian 1.550 milioi pezetako aparteko gastu bat zegoelako, unibertsitate publikorako desjabetze batzuk egiteko. Gastu hori kon-

tuan izan gabe, aurreko ekitaldian inbertsioen kapitalua ehuneko 10 hazi zen.

Proiektu edo kontabilitate-lerro bakoitzaren hazkundeak edo gutxitzeak bi ekitaldietako egozpen ezberdinek aldarazita ageri dira.

Gure berrikuspenean, 50 milioi pezeta baino saldo handiagoa duten kontabilitate lerroetan zentratu gara, ondoko xehetasunen arabera:

Berrikusitako kontabilitate lerroak

Proiektu zenbakia	Kontabilitate lerroa	Zenbatekoa (pezetak, miliotan)		Hazkundera, %
	Gastu arruntak	2000	2001	
410	Konponketa eta kontserbazio lanak	90,9	91,2	-
410	Jantokiak	241,9	259,2	7
410	Ikastetxeen funtzionamenduaren finantziarioa	1.384,7	1.070,9	(23)
410	Ikastetxeak garbitzea	-	327,1	-
410	Eraikinen funtzionamendu gastuak.	119,8	127,7	7
410	Eskola garraioa	1.101,6	1.157,2	5
420	LHren garapena eta jarraipena	27,7	56,4	103
420	Funtzionamendu gastuak	19,7	32,4	64
420	Programetako funtzionamendu gastuak	46,7	46,1	(1)
421	Irakasleentzako prestakuntza jarduerak	72,9	91,1	25
422	Teknologia berrietako programen funtzionamendua	23,5	67,8	188
	2. kapitulua, guztira	3.129,4	3.327,1	6
	Hezkuntzako 2. kapitulua, guztira		4.010	
	Berrikusitako lerroak, %		% 83	

Proiektu zenbakia	Kontabilitate lerroa	Zenbatekoa (pezetak, miliotan)		Hazkundera, %
	Inbertsioak	2000	2001	
410	Ikastetxe berriak eraikitzea	1.444,8	1.580,2	9
410	Material didaktikoa eskuratzea	680,9	601,3	(12)
410	Prestakuntza plan teknologikoa	0,9	300,5	-
422	Ekipoak erostea	21,7	65	199
441	Unibertsitate Publikorako desjabetzeak	-	179,3	-
	6. kapitulua, guztira	2.148,3	2.726,3	27
	Hezkuntzako 6. kapitulua, guztira		2.942,8	
	Berrikusitako lerroak, %		% 93	

Taulan ikus dezakegun bezala, kontabilitate lerro horiek gastu arrunten kapituluaren ehuneko 83 eta inbertsioen ehuneko 93 egiten dute.

Ondoko epigrafean gure lanetik atera daitezkeen ondorio orokorrak aurkezten ditugu; IV. epigrafean, berriz, laginean hautaturiko gastuen arloan eginiko lan zehatza eta kontrola hobetzeko gure ustez egokiak diren gomendioak bildu ditugu.

III. ONDORIOAK.

Hautatutako gastu arlo ezberdinetan egindako lanaren arabera –haren iruzkin zehatza txosteneko IV. epigrafean ikus daiteke–, ondoko ondorioak atera ditugu:

- Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren 2001eko ekitaldiko erosketa eta inbertsioen aurrekontu-betetzeak nahiko ongi biltzen ditu berrikusitako arlo ezberdinetan egoztekoak zaizkion erosketen eta inbertsioen gastuak, eta gastu horiek dokumentazioan egoki jasota daude.

- Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak erosketak eta inbertsioak aplikatzekoak diren legeen arabera egiten ditu.

- Erosketen eta inbertsioen arlo ezberdinetako kontrol eta kudeaketa prozedura eta sistemak arrazoizkoak dira. Hala eta guztiz ere, gure helburuei jarraituz, zenbait gastu-arlotan haiak hobetzeko egoki jotzen ditugun gomendioak eman nahi ditugu.

IV. EGINDAKO LANA ETA GOMENDIOAK

Ondoren, egindako lanak eta laginean hautatutako gastu-arlo bakoitzeko ondorio eta gomendioak iruzkindu nahi ditugu.

IV.1 KONPONKETA ETA KONTSERBAZIO LANAK

91.2 milioiko gastuak biltzen dira Gobernuaren ikastetxeetan konponketa eta kontserbazio lanengatik; gastua aurreko ekitaldikoaren ia berdina da.

Konponketa horiek Inbertsio Zerbitzuko Ikastetxeen Mantenimendu Atalak kudeatzen ditu.

Betetzearen 91,2 milioiak 102 zordunei ordaintzen zaizkie, 256 fakturaren bitartez (normalean zenbateko txikikoak dira). Hona xehetasunak:

Zenbatekoa	Faktura kopurua
< 500.000	212
> 500.000 < 1.000.000	44
Guztira	256

Oro har, kontusail bakoitzari egotzitako gastuak presakoak izan ez baina aurreikusten ezinezkoak ziren konponketei dagozkie; horrenbestez, plangintza baten jasotzeko zailak diren gastuak dira.

Egindako lanetik ondoriozta daiteke kontusail honetan erregistraturiko gastuak Gobernuaren ikastetxeetako konponketa eta kontserbazio lanei dagozkiela, eta gastuak egoki dokumentatu eta kontabilizatu direla.

Hala eta guztiz ere, gastuen arloko barne kontrola hobetzeko bidean, hona gomendatzen duguna:

Kontrol lagungarri bat ezartzea, ikastetxe bakoitzaren gastuak eta oraindik ere erantzun gabe dauden eskariak erregistratzeko; horrek aukera emango du nolabaiteko plangintza egiteko.

IV.2 ESKOLETAKO JANTOKIAK

2001eko ekitaldian, kontzeptu honengatik eginiko gastuak 259 milioi pezeta egiten zuen; aurreko ekitaldiaren aldean, beraz, ehuneko 7 egin du gora.

Eskoletako jantokiak uztailaren 24ko 246/91 Foru Dekretuaz eta maiatzaren 11ko 186/93 Foru Aginduaren bitartez arautu ziren. Haien kudeaketa Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzuari dagokio.

Ordaintzen diren laguntzak ondoko kontzeptuei zor zaizkie:

- Eskualdeko ikastetxeetan ikastetxera garraiatutako ikasleei jantokia ordaintzen zaie (eguneko 527 pezeta 3.492 ikaslerentzat). Laguntza ikastetxeari ordaintzen zaio.

- Ikastetxe arruntetan familia behartsuetako ikasleei ordaintzen zaizkie (eguneko 494 pezeta 1.027 ikaslerentzat). Laguntza ikastetxeari ordaintzen zaio.

- Garraiatutako ikasleen kasuan, ikastetxean jantokirik egon ezean, banakako laguntzak zuzenean ikasleei ordaintzen zaizkie (eguneko 526 pezeta 136 ikaslerentzat).

Dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten ikasle guztiek, baldin eta ikastetxean jantokia badute, urtero eguneko kopuru bat jasotzen dute; 2001-2002 urterako 219 pezeta ziren.

Gure berrikuspen honetatik abiatuta, ondorioa izan daiteke kontusail honetan erregistraturiko gastuak Nafarroako Gobernuak eskola jantokiatarako araututako baldintzetan eman dituen dirula-

guntzei dagozkiela. Behar bezala dokumentaturik eta kontabilizaturik daude.

Hala eta guztiz ere, gastuen arloko barne kontrola hobetzeko bidean, hona gomendatzen duguna:

- *Ikastetxeek Gobernura igorri behar duten informazioa normalizatu eta sistematizatzea, eta aplikatzekoa den legedia gaurkotzea, kasuistika berriari egokituz.*

IV.3 IKASTETXE PUBLIKOEN FUNTZIONAMENDUAREN ETA ZUZKIDURA MATERIALAREN FINANTZAKETA

Kontusail honetan ikastetxeek normaltasunez funtzionatzeko egin behar dituzten era guztietako gastuak biltzen dira. Toki entitateak jabe diren ikastetxeen kasuan, eraikinetako mantentze, kontserbazio eta zaintza gastuak kanpoan uzten dira. Izan ere, horiek guztiak titularrek ordaindu behar dituzte.

Gastuen kontusail honek, zeinak 2001eko ekitaldian 1.071 milioi pezeta egiten dituen, tratamendu eta araubide bereziak ditu, ikastetxeek legez daukaten kudeaketarako autonomiaren ondorioz, LOGSEren 58.2 artikulua araberara eta 250/92 Foru Dekretuko 1. artikulua araberara.

Kontabilitateko funtzionamendua da benetan egindako gastutzat erregistratzea ikastetxeei kudeaketarako behar dituzten kopuruak eskualdatzea, alde batera utzita ikastetxeek horiek benetan egiten dituzten.

Haien kudeaketa Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzuari dagokio.

Ondokoak dira biltzen dituen gastu-kontzeptuak:

Gastuak	Zenbatekoa (pezetak, milioitan)	Guzt. g/ %
B.H.I. eta Nafarroako Gobernuaren bestelako zentroak	783	73
Ikastetxe publikoak eta udalen jabetzapekoak	170	16
Ikastetxeen funtzionamenduko bestelako gastuak	118	11
Guztira	1.071	100

Nafarroako Gobernuaren ikastetxeen banaketa irakasten diren hezkuntza mailako ikasleen eta eraikineko baldintzen arabera egiten da.

Gastuak 56 ikastetxeri dagozkie, guztira 32.000 ikasle inguru hartzen dituztenak; horietatik 2.684 ikasle Bigarren Hezkuntzako 43 institutueta-koak dira.

Onetsitako diru kopuruen ordainketa hiru zatitan egiten da ekitaldian zehar; kasuan kasuko kopuruak ikastetxe bateko berariazko bankukontu batean sartzen dira, hain zuzen ere "kudeaketako kontu berezia" izenekoa, zeinak 2001eko abenduaren 31n 374 milioi pezetako saldo orokorra baitauka.

Sei hilez behin, ikastetxeek beren kudeaketaren berri eman behar diote Hezkuntza Departamentuari, garai horretako dirusarrera guztiak eta gastuak eta ateratzen den saldoa dokumentatuz. Egiagtagiriak ikastetxeetan artxibatuko dira.

Gastuen arlo honetan eginiko lanetik abiatuta, ondorioa da ikastetxeetako funtzionamendu gastu gisa kontabilizaturiko kopuruak arrazoizkoak direla eta behar bezala dokumentaturik daudela.

Hala eta guztiz ere, gastuen arloko kontrola eta kudeaketa hobetzeko bidean, hona gomendatzen duguna:

- *Ikastetxeetako kudeaketa ekonomikoari buruzko arauak berrikusi eta gaurkotzea, eta kontabilitate plan bat ezartzea, kontabilitateko arau eta irizpideekin, ikastetxe ezberdinetako informazioa homogenea dela bermatuko dutenak.*

IV.4 IKASTETXEETAKO GARBIKETA GASTUAK

Kontzeptu horrengatik, 2001eko urtean 327 milioi pezeta gastatu ziren.

Ekitaldi honetan lehenbiziko aldiz gastu hau berariaz jasotzen da kontu bereizi batean; aurreko ekitaldietan, ordea, ikastetxeetako prestakuntzarako eta funtzionamendurako gastu orokorren kontusailean sartzen zen.

Garbiketa gastuak uztailearen 6ko 250/92 Foru Dekretuaz eta urriaren 15eko 449/1992 Foru Aginduaren bitartez arautu ziren. Haien kudeaketa Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzuari dagokio.

Garbiketa enpresa batzuekin kontraturik dago; izan ere, enpresa horiei ikastetxeak esleitzen zaizkie. Gobernuak gastua ikastetxeei ordaintzen die, eta ikastetxeek hilero zerbitzua adjudikatuta daukaten enpresei ordaintzen diete. Adjudikazioak, normalean, 6 urtera arte luza daitezke, eta urteko KPIaren arabera gaurkotzen dira.

Gainera, kontusail honek aparteko garbiketa batzuen fakturen ordainketa batzuk ere biltzen ditu; zenbateko txikikoak dira, betiere.

Kontusail honetan eginiko lanetik ondoriozta daiteke garbiketa kontratuen adjudikazioak lege indardunen arabera egiten direla, eta erregistraturiko gastuak zerbitzu horiei dagozkiela. Gastuak behar bezala dokumentatu eta kontabilizatu dira. Hala eta guztiz ere, zenbait espedientetan exijitzen diren formazko baldintzetako bat falta da.

Gastuen arloko barne kontrola hobetzeko bidean, hona gomendatzen duguna:

- *Ikastetxe ezberdinetako informazioa osorik kontrolatzea, hartara espediente bakoitzaren egoera arintasunez ezagutzeko, eta, kasua bada, adjudikazio berrien tramitazioa aurreratzea, presako bidera jo gabe.*

- *Adjudikazioetan, Kontratuei buruzko Foru Legeko formazko alderdiak hertsiki betetzea.*

IV.5 GOBERNUAREN ERAIKINEN FUNTZIONAMENDU GASTUAK. ALOKAIURUAK ETA KONPONKETAK.

Atal honek, 2001eko ekitaldian, 127,7 milioiko gastua izan du; hau da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 7 egin du gora. Inbertsio Zerbitzuko Ikastetxeen Mantenimendu Atalak kudeatzen ditu.

Kontusail honetan kontabilizaturiko kontzeptuen artean, hauek azpimarratu behar dira:

- Alokairuak, guztira 46 milioi pezeta egiten dutenak.

- Departamentuaren egoitza garbitzea (22 milioi pezeta).

- Eraikineko segurtasuna kontratatzea (17 milioi pezeta).

- Argia (10 milioi pezeta).

Gainerakoak gastu anitzen, konponketen, gasaren eta abarren faktura ugari eta txikiak dira, 90 hartzekoduni ordaindutakoak.

Arlo honi buruz egin dugun azterketatik ondoriozta daiteke nahiko ongi betetzen direla gastu anitzei aplikatzekoak zaizkien lege-zehaztapenak, eta gastuak behar bezala dokumentatu eta erregistratu direla.

Hala eta guztiz ere, gastuen arloko kontrola eta kudeaketa hobetzeko bidean, hona gomendatzen duguna:

- *Sortzen doazen adjudikazio berrien espedientea behar den aurrerapenarekin hastea, hartara presako bidea saihestuz.*

IV.6 ESKOLA GARRAIOA

Kontusail honen kudeaketa eta kontrola Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzuari dagozkio, zehazki Zerbitzu Osagarrien Bulegoari (garraioa, jantokia eta egoitza), eta ekitaldian 1.157,2 milioi pezetako gastua izan du; aurreko ekitaldiaren aldean, beraz, % 5eko hazkundea izan da.

Eskolako garraio zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendua ekitaldiz ekitaldi onesten da, eta 2001ean ekainaren 13ko 221/2001 Foru Agindua- ren bidez gauzatu zen.

Laguntza motaren araberako gastuaren xehekapena ondoko hau da:

Garraio mota	2000	2001	Ikasle kopurua
Laguntzaileen zerbitzua	1.091.509	9.679.421	–
Banakako laguntzak	54.988.544	58.568.258	605
Epaia betetzea	0	192.793	
Nafarroako Gobernuak antolatutako garraioa	1.045.597.761	1.088.779.825	10.615
Guztira	1.101.677.814	1.157.220.297	–

Aztergai dugun ikasturteko kontratu gehienak aurreko ekitaldietako adjudikazioei dagozkie, hain zuzen ere luzatutako adjudikazioak. 2001ean 12 ibilbide berri adjudikatu dira.

Gastuen arlo honetan eginiko berrikuspenetik aurrera, ondoko ondorioak atera ditzakegu: arlo honetako kontrol eta kudeaketa prozedurak arazoizkoak dira, adjudikazioak aplikatzekoa den legediaren arabera egiten dira eta gastuak behar bezala dokumentaturik eta justifikaturik daude.

IV.7 LANBIDE HEZIKETAREN GARAPENA

Gastu kontzeptu hau hiru kontabilitate lerrotan banatzen da:

	Gastua (pezetak , milioitan)
Lanbide Heziketaren garapena eta jarraipena	56,4
Lanerako Lanbide Heziketako ikastaroetako funtzionamendu gastuak	32,4
Lanbide hastapeneko programetako funtzionamendu gastuak	46,1

IV.7.1 Lanbide heziketaren garapena eta jarraipena

Kontusail honek, funtsean, Lanbide Heziketako II. azokako gastuak biltzen ditu; haien erdia baino gehiago Merkataritza Ganberarekin izenpetutako hitzarmen bati dagozkie. Haien kudeaketa Ikasketen Antolamendu eta Lanbide Heziketarako Zerbitzuari dagokio.

Gure berrikuspen honen arabera, gastuak arazoizkoak dira eta behar bezala dokumentatu eta kontabilizatu dira.

IV.7.2 Lanerako Lanbide Heziketako ikastaroetako funtzionamendu gastuak

Gastu lerro honek arautu gabeko heziketa jardueretarako gastuak biltzen ditu. Haren kudeaketa Lanbide Heziketa eta Enpresaren Atalari dagokio.

Heziketa jarduera hauek zuzenak izan daitezke, Departamentuaren bidezkoak, Nafarroako Enpleguaren Institutuarekin lankidetzan eginikoak eta EHN enpresarekin eginiko hitzarmenaren bidezkoak, energia berriztagarriei buruzko ikastaroetarako.

Gure berrikuspen honen arabera, kontusail honetan bilduriko gastuak arazoizkoak dira eta behar bezala dokumentatu eta kontabilizatu dira.

IV.7.3 Lanbide hastapeneko programetako funtzionamendu gastuak

Lerro honen gastua gehienbat 7 ikastetxeri atxikitako hamalau lanbide tailer finantzatzeari dagokio. Haren kudeaketa Lanbide Heziketa Berriztatu eta Garatzeko Atalari dagokio.

Gure berrikuspenean azterturiko gastuak arazoizkoak dira eta behar bezala dokumentatu eta kontabilizatu dira. Edonola ere:

233/99 Foru Dekretuan Nafarroako Gobernuko gainerako departamentuekin eta Toki Administrazioarekin aurreikusitako lankidetzaren hitzarmenak hasia gomendatzen dugu, hain zuzen ere lanbide hastapeneko programa hauek kudeatu eta finantzatzeko.

IV.8 IRAKASLEENTZAKO HEZIKETA JARDUERA

Gastu lerro honen exekuzioa 91 milioi pezeta-takoa da 2001eko ekitaldian; horrek esan nahi du ehuneko 25eko hazkundea izan dela aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero. Haren kudeaketa Irakasleen Hobekuntzarako Atalari eta Pedagogi Berrikuntzarako Zerbitzuari dagokio.

Irakasleentzako heziketa jarduerak ekainaren 17ko 245/1996 Foru Dekretuan araututa daude; bertan, Irakasleen Etengabeko Prestakuntzako Sarearen sorrera, egitura eta antolamendua ezarri ziren.

Gaur egun, urtero Irakasleen Hobekuntzarako Atalak Prestakuntza Plana prestatzen du, ikasturte osorako, eta bertan biltzen ditu irakasleentzako laguntza zentroek eginiko proposamenak. Kontabilitate lerro honetan prestakuntza plan horren exekuzio gastuak biltzen dira.

Gastu lerro hau kontrolatzeko eta kudeatzeko prozedura azterturik, irakasleentzako prestakuntza jarduerari dagokienean, gure ustez kontrol prozedurak egokiak dira eta gastuek behar den euskarria dute eta ongi kontabilizaturik daude.

IV.9 IKASTETXE BERRIAK ERAIKITZEA

Aitorturiko betebeharren 1.580 milioi pezeta egiten ditu gastu lerro honek, eta ikastetxeak zabaldu eta zaharberritzeko obrak eta eraikin berrien eraikuntza-lanak biltzen ditu; haien erantzukizuna Inbertsio Zerbitzuarena da.

Beharrianak hezkuntza ikuskatzaileen informazioaren bitartez zehazten dira oro har, estatistikak eta etorkizuneko aurreikuspenak ere aztertuta. Informazio honekin hiru urteko plangintza bat

egiten da, aurrekontuan erabilgarri dagoen diruari egokitzen zaiona.

Arlo honetan egindako lanaren arabera, egindako lanak, oro har, lege indardunen arabera egin dira, eta lanak lehiaketa publikoaren bidez adjudikatu dira.

IV.10 MATERIAL DIDAKTIKOA ESKURATZEA

Kontzeptu hau hainbat gastu-lerrotan banatuta dago:

	Pezetak, milioitan
Material didaktikoa eskuratzea	601
Lanbide Heziketarako teknologia eskuratzea	300
Ekipo eta osagarriak eskuratzea	65
Teknologia berrietako programen funtzionamendua	68

Kontusail hauek guztiek helburu dute Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak kudeaturiko ikastetxetarako material didaktikoa, altzariak eta ekipamendua eskuratzea. Hala eta guztiz ere, teknologia berrien programaren azken kontzeptua (sareak, Internet) Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen du.

Egindako azterketaren ondorioz, esan dezakegu gastuen lerro hauetan erregistraturiko gastuak Hezkuntza Departamentuak material didaktikoa

erosteari dagozkiola eta behar bezala dokumentatu eta kontabilizatu direla.

Hala eta guztiz ere, gastuen arloko kontrola hobetzeko bidean, hona gomendatzen duguna:

- *Material didaktikoaren erosketak negoziatu bakar batean zentralizatzea komeni den aztertzea, betiere Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren barruan.*
- *Horrelako erosketen inbentarioa egiteko irizpideak ezartzea.*

IV.11 NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOARENTZAKO DESJABETZAPENAK.


Lerro honetan kontabilizaturiko kopurua, 179,3 milioi pezeta, ez du Hezkuntza Departamentuak kudeatzen.

Unibertsitate Publikoarentzat lursail batzuk desjabetzeko epaimahaiak ezarritako balio justua- ren eta Auzitegi Gorenak erabakitako balio justua- ren arteko aldea ordaintzetik datozen gastu batzuk dira; izan ere, Auzitegi Gorena izan bai- tzen desjabetutako lursail batzuetako jabeek aur- kezturiko errekursoak ebatzi zituen.

Txostena egiteko arduraduna den Francisco Javier Sesma Masa jaunak proposatuta ematen da, indarrean dagoen arautegian aurreikusitako bitarteko guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 15ean.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Eranskina: Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren organigrama.**Arartekoari buruzko fiskalizazio txostena, 2002ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 17an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak eginiko Arartekoari buruzko fiskalizazio txostena, 2002ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Arartekoari buruzko fiskalizazio txostena, 2002ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera: Arartekoa (10. or.).
- II. Helburua eta norainokoa (11. or.).
- III. Iritzia (12. or.).
- IV. Finantzen egoera orriak 2002-12-31n (13. or.).

I. SARRERA: ARARTEKOA

2000ko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak sortutako erakunde bat da; bertan arautzen dira haren osaketa, funtzioak eta prozedurak. Lege horren zioen azalpenetik eta artikuluetatik, ondoko xehetasunak atera nahi izan ditugu:

“Espainiako Konstituzioak, eta gure kasuan Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoak ere, herritarrei aitortzen dizkien eskubideak eta libertateak defendatzeko hainbat instituzio publiko daude gure antolamendu juridikoan; horien artean, Arartekoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak behatu eginen du Nafarroako Foru Komunitatearen jarduera, toki administrazioarena eta baita horien eragileena ere; beraz, Arartekoak, bere kabuz edo norbaitek hala eskaturik, administrazio publikoen egintza edo ebazpenak argitzea helburu duen edozein ikerketa hasi eta horrekin jarraitu

ahalko du. Berezko pertsonak nahiz pertsona juridikoek, inongo mugarik gabe, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoarengana jo ahalko dute eta parte har dezala eskatu egintza, ebazpen eta jokabide jakin batzuk argitzen, horiek pertsona bat edo pertsona talde bat kaltetu dutenean eta Nafarroako foru edo toki administrazioan eman direnean.

Figura hau herritarrengandik gertu dagoen erakundea da, doanekoa, arina, eta kontrol-prozeduraren malgutasuna, ikerketa-metodoak eta arazok ebazteko sistemak ditu ezaugarri nagusi.

Azken batean, legezketasun printzipioak eta administrazio jarduketara arautzen dutenak aplikatuz, Arartekoa administrazioa iristen ez den alorretara irits daiteke, herritarren mesederako, eta bereziki, babesgabeen alde.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak hauxe ikuskatu dezake:

a) Foru Komunitateko administrazioa, haren erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta haren menpeko gainerako ente publikoak.

b) Nafarroako toki administrazioarena, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoak Nafarroari eskumenak aitortzen dizkion gaiei dagokien orotan; eta halaber nortasun juridikoa duten haren ente eta enpresa publiko zein menpekoena begiratu du.

c) Parlamentuko administrazioa eta Nafarroako Parlamentuak sortutako erakundeen jarduera administrazioa.

d) Halaber, administrazio kontzesio bidez pertsona fisiko edo juridikoak kudeatutako zerbitzuak ere begiratu ahalko ditu eta, oro har, edozein erakunde edo entitate, pertsona juridiko edo pribatu, baldin eta zerbitzu publiko batean diharduela, nolabaiteko administrazio kontrol edo tutoretza egiten badiote, Nafarroako Foru Eraentza berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak Nafarroako Foru Komunitateari eskumenak ematen dizkion gai orotan.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa Nafarroako Parlamentuak hautatuko du; sei urterako, hain zuzen. Hautatzeko Parlamentuko kideen hiru bostenen aldeko botoa beharko da."

Arartekoaren 2002. urterako aurrekontuak (2001. urteko luzatutakoa) 743.846,77 € egiten ditu, 606.235,43 eurotako aitorturiko betebeharrekin. Ekitaldia ixtean, 137.610,82 eurotako aurrekontu-superabita zegoen. Ekitaldiko finantzaketaren superabitak, berriz, 170.905,75 euro egin ditu, behin ghitutako kredituen finantzaketarekin doitu

eta aurreko ekitaldiko betebeharrak deuseztatu ondoren.

Kontuan hartu beharra dago erakundea 2001eko martxoan hasi zela lanean, eta, beraz, 2002ko ekitaldia urtebetekoa izan dela, lehenbiziko aldiz.

Ekitaldian zehar eginiko aurrekontu-aldaketek 327.241,45 euro egiten dituzte, ekipo informatikoak finantzatzeko 2001eko kreditu-gerakinak gehituz datozenak (20.434,41 euro), uste baino dirusarrera handiagoetatik sortutako kredituetatik datozenak (1.803,04 euro) eta kreditu osagarrien bidezko kreditu-gehituntzen ondoriozkoak (305.004,00 euro).

Arartekoaren 2002ko plantilla organikoak, Nafarroako Parlamentuko Mahaia 2002ko abuztuaren 14an onetsiak (2002ko abuztuaren 26ko 83. NPAO), egitura hau dauka:

Lanpostua	Administrazio egoera:		Guztira
	Aktiboa	Bete-gabeak	
Arloko aholkulari arduraduna (behin-behinekoa)	2		2
Aholkulari teknikoak (behin-behinekoa)	1		1
Idazkaritza (Kabinetea izan daitekeena)	1		1
Administrariak (funtzionarioak)	1	1	2
Gelazaina (funtzionarioa)	-	1	1
Guztira	5	2	7

2002ko abenduaren 31n, Nafarroako Arartekoaren bulegoan 7 pertsona zeuden jardunean, honela sailkatuz:

Jarduneko funtzionarioak	1
Administrazio kontratadunak, aldi baterakoak	1
Lan-kontratadunak, zerbitzuen beharrei erantzuteko	1
Behin-behineko langileak	4
Guztira	7

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/2002 Foru Legeari jarraituz, 2002rako duen jarduketara-programaren barruan sartu da "Arartekoa, 2001eko ekitaldia" fiskalizazio txostena.

Lan honekin helburu hauek bilatzen dira:

- 1. helburua. Arartekoaren gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren betetze mailak 2002ko ekitaldian egindako eragiketak behar bezala islatzen dituela egiaztatzea.

- 2. helburua. Ondare-egoeraren agerpena 2002ko abenduaren 31n.

- 3. helburua. Fiskalizazioaren xede den jarduerari aplikatzekoa zaion legezketasun printzipioa bete ote den egiaztatzea.

Metodologiari dagokionez, lortu nahi diren helburuak aintzat harturik, ganbera honek erabili ohi dituen auditoria prozedurak erabili ditugu, bere Auditoria Gidan jasota dituenak eta Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak sektore publikoaren auditoriarako onetsiriko arau eta printzipioei jarraituz.

Azterketa-lana 2003ko otsailean egin zuten auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskertu nahi dugu Arartekoaren bulegoko langileen laguntza, lan hau egitea erraztu duelako.

III. IRITZIA.

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Nafarroako Arartekoaren eta bere 2002ko ekitaldiko gastuen likidazio-orriak aztertu ditugu. Kontseiluaren ardu-

rapean egina da, eta txosten honetako IV. atalean jaso dugu.

Gure azterketan, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak sektore publikoaren auditoriarako onetsiriko arau eta prozedurak aplikatu ditugu.

Egindako azterketaren emaitza gisa, ondoko iritzia eman behar dugu:

2002ko gastuen aurrekontuaren betetzeari dagokionez

2002ko gastuen aurrekontuaren likidazio orriak egokiro islatzen du ekitaldian egindakoa, salbuespen honekin:

Ondare egoerari buruzkoa

Egoera-balantzeak nahiko ongi agertzen du finantza eta ondare-egoera 2002ko abenduaren 31n.

Legezketasuna

Oro har, Arartekoaren jardura ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz burutzen da.

Txostena egiteko arduraduna den Francisco Javier Sesma Masa jaunak proposatuta ematen da, indarrean dagoen arautegian aurreikusitako bitarteko guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2003ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

IV. FINANTZEN EGOERA ORRIAK 2002-12-31n

1. TAULA. 2002ko AURREKONTUAREN BETETZEA

Arartekoaren 2002ko aurrekontuaren likidazioa,
gastuen kapitulu ekonomikoen arabera (eurotan)

	Hasierako aurrek.	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Aitorturiko betebeharrak	Ordain-dutakoa	Ordaintzeke (emaitzak)	Sartut.	Baliogabetua
1. Langileria gastuak	215.498,90	200.188,00	415.686,90	313.815,26	313.815,26	0,00	0	101.871,64
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	123.207,48	135.741,04	258.948,52	230.118,17	189.239,70	40.878,47	3.000,00	25.830,35
4. Transferentzia arruntak	12.020,24	13.378,00	25.398,24	21.449,17	17.646,95	3.802,22	3.802,22	146,85
6. Inbertsio errealak.	84.141,70	-22.065,59	62.076,11	40.852,83	39.862,31	990,52	13.173,93	8.049,35
Gastuak, guztira	434.868,32	327.241,45	762.109,77	606.235,43	560.564,22	45.671,21	19.976,14	135.898,20

Arartekoaren 2002ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa (pezetak)
dirusarreraren kapituluaren ekonomikoen arabera

	Hasierako aurrek.	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Egindako dirusarrerak	Zenbateko efektiboa	Sartutakoa +/-
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak.	0,00	1.803,04	1.803,04	2.091,04	2.091,04	288,86
4. Transferentzia arruntak	395.201,52	305.004,00	700.205,52	700.205,52	700.205,52	---
5. Ondare dirusarrerak	601,01	0,00	601,01	2.483,04	2.483,04	1.882,03
7. Kapital-transferentziak	39.065,79	0,00	39.065,79	39.065,79	39.065,00	---
8. Finantza-aktiboak	0,00	20.434,41	20.434,41	0,00	0,00	-20.434,41
Dirusarrerak, guztira	434.868,00	327.241,45	762.109,77	743.846,25	743.846,25	18.263,52

2. TAULA. 2002ko EKITALDIKO EMAITZA ARRUNTEN KONTUA (EUROTAN)

Gastuak	Euroak	Dirusarrerak	Euroak
Langileria gastuak	332.606,03	Interesak	2.483,04
Kanpoko lan, hornidura eta zerb.	211.327,40	Kapital-transferentziak	39.065,79
Transferentzia arruntak	21.449,17	Transferentzia arruntak	700.205,52
Ekitaldiko emaitza arruntak (B. arrunta)	191.324,17	Bestelako dirusarrera bereziak	12.860,53
		Bestelako dirusarrerak	2.091,90
Guztira	756.706,78	Guztira	756.706,78

2002ko EKITALDIKO EKONOMIA ETA ONDARE EMAITZAREN KONTUA (EUROTAN)

Kontzeptua	Euroak
Ekonomi eta ondare emaitza	191.324,17
Ondarea	20.418,12
Inbertsio garbi aktibatuak, 2002	20.418,42
Ekonomi eta ondare emaitza doituak	170.905,75

3. TAULA. 2002ko EKITALDIKO EMAITZAREN BANAKETA (EUROTAN)

Kontzeptua	Euroak
ITURRIA	
Ekonomi eta ondare emaitza doituak	170.905,75
APLIKAZIOAK	
Foru ogasun publikoa, kredituen itzulketako hartzekoduna Kredituak	150.929,61
Atxikitako funtsak, sartzeko daudenak	19.976,14

4. TAULA. EGOERA BALANTZEA 2002-12-31n (EKITALDIAREN EMAITZA APLIKATU ONDOREN) (EUROTAN)

AKTIBOA	2001	2002	PASIBOA	2001	2002
A) Ibilgetua	60.514,58	101.367,41	A) Funts berekiak.	80.948,99	121.343,55
<i>I. Ibilgetu materiala.</i>	<i>43.774,85</i>	<i>80.316,44</i>	<i>I. Ondarea eta erreserbak</i>	<i>80.948,99</i>	<i>121.343,55</i>
Makineria, instalazioak, tresnak	14.846,82	17.177,97	Ondarea	60.514,58	101.367,41
Altzariak eta tresnak	19.479,00	25.036,68	Atxikitako funtsak, sartzeko daudenak (aplikatzeko dauden emaitzak, positiboak)	20.434,41	19.976,14
Informazioa lantzeko ekipoak	7.390,22	34.557,31			
Bestelako ibilgetu material	2.058,81	3.544,48	b) Epe laburreko zorrak	81.203,32	201.777,14
<i>II. Ibilgetu ez-materiala</i>	<i>16.739,73</i>	<i>21.050,97</i>	<i>I. Aitorturiko betebeharrak hartzekod.</i>	<i>30.408,54</i>	<i>45.671,21</i>
Aplikazio informatikoak	16.739,73	21.050,97	Indardun ekitaldian aitorturiko betebeharrak hartzekodunak	30.408,54	45.671,21
<i>b) Finantza-kontuak:</i>	<i>101.637,73</i>	<i>221.753,28</i>	<i>II. Zorrak entitate publikoekin</i>	<i>50.794,78</i>	<i>156.105,93</i>
Kutxa	293,92	38,42	Gizarte Segurantzaren hartzekoduna	4.668,25	5.176,32
Bankuak eta kreditu-entitateak	101.343,81	221.714,86	Foru Ogasun publikoa, kreditu itzulketako hartzekoduna.	46.126,53	150.929
AKTIBOA, GUZTIRA	162.152,31	323.120,69	PASIBOA, GUZTIRA	162.152,31	323.120,69

Iruñeko Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 17an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak eginiko Iruñeko Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, argitaratu dadila agintzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Iruñeko Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (15. or.).
- II. Helburua (19. or.).
- III. Norainokoa (19. or.).
- IV. Iritzia (20. or.).
 - IV.1. 2001eko aurrekontuaren likidazioari dagokionez (20. or.).
 - IV.2. 2001eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (20. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (20. or.).
 - IV.4. Finantza- eta ekonomia-egoera 2001eko abenduaren 31n (20. or.).
 - IV.5. Informazio osagarria eta azalpen oharrak (20. or.).
 - IV.6. Comptos Ganberaren gomendioen jarraipena (20. or.).
- V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (21. or.).
 - V.1. Antolaketa orokorra (21. or.).
 - V.2. Langileak (21. or.).
 - V.3. Ondasun eta zerbitzuen erosketa (22. or.).
 - V.4. Transferentziak (22. or.).
 - V.5. Inbertsioak (22. or.).
 - V.6. Dirusarrerak (23. or.).
 - V.7. Bestelako alorrak (23. or.).
 - V.8. Gorabeherak (23. or.).
 - V.9. Informazio osagarria eta azalpen oharrak (23. or.).
 - V.10. Udalaren menpeko erakundeak (23. or.).

Eranskina: 2001eko abenduaren 31ko finantzen egoera-orri bateratua.

(Oharra: Aipatu eranskinak foru parlamentarioen eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta hurrengo webgunean: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Nafarroako Comptos Ganberak Foru Komunitateko udalen kontuei buruz 1986an eginiko lehendabiziko txosten hartatik hona, gure metodologia aldatzen joan da toki entitateei, Parlamentuari eta gizarteari, oro har, zerbitzu hobea emateko asmoarekin.

Gure ibilbide horren parekoa izan da toki entitateetan, kontabilitatearen kudeaketa eta informazioaren sistemen arloan gertatu den hobekuntza nabarmena. Gure aurreko txostenak zabalak ziren, fiskalizazioaren menpe zeuden toki entitateen aurrekontu betetzea eta finantza egoera hobeki ulertu ahal izateko beharrezkotzat jotzen genuen informazio osagarria ere eransten baiken.

Ekitaldi honetan, Nafarroako kontu orokorrei buruzko txostenarekin egin dugun antzera, aldaketa nabarmen samarra egin dugu 10.000 biztanletik gorako udal hauetako txostenen egiturari, udalak eginiko eranskin bat sartu baitugu. Bertan jasotzen dira finantzetako egoera-orri bateratuen informazio osagarria eta azalpen oharrak, ekitaldiko informazio garrantzitsuena barne, eta horrela txostenaren luzera murriztu egin da, informazioa bi aldiz ez ematearren.

Eranskin horren edukia udal horietako teknika-riek eta Comptos Ganberakoek osaturiko batzorde batek ezarri zuen, Toki Administrazioeko Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren laguntzarekin. Logikoa denez, edukia gaurkotzen joan da hurrengo ekitaldietan lortutako emaitzen arabera.

Iruñeko Udalak 2001eko urtarrilaren 1ean 186.245 zuzenbideko biztanle zituen, eroldako datuen arabera. 2001eko abenduaren 31n honako datu hauek agertzen ditu:

Udala eta erakunde autonomoak:

	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko betebeharrak (pezetak, milioika)
Udala	22.728	24.363
Hirigintza Gerentzia	9.085	9.107
Haur eskolak	692	719


Enpresak	Jarduera	part., %	Auditoretza independentea
Comiruña, S.A.	Txikizkako merkatuak	100	Bai
Mercairuña, S.A.	Handizkako merkatuak	51	Bai
ANIMSA	Udal informatika.	78,06	Bai
Congresos Pamplona C.B..S.A.	Kongresuen kudeaketa	30	-

Fundazioak.	Jarduera	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak
Gaiarre Antzokia	Kultur kudeaketa.	370	368
Erruki etxea	Zahar-etxea	2.168	2.119


Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen tratamendukoak eta hiri garraiokoak.

Su-itzaltze zerbitzua ematen da Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendurako partzuergoaren bitartez, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorretan sarturik daude.

Iruñeko Udalaren antolakuntza eskematikoki ikus daiteke honako grafiko honetan:



Udalaren administrazio orokorra honako organigrama honetan ikus daiteke:



II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbarari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, fiskalizatu egin ditugu bai Iruñeko Udaleko kudeaketa ekonomiko-finantzarioa bai udal horren 2001eko ekitaldiko gastu eta dirusarreraren aurrekontuen exekuzioa.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak eta administrazio-kontratazioa nahiz hirigintza-kudeaketa eraentzen dituzten arauak osatzen dute; baita Nafarroako toki enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko arauak ere.

Kontabilitate eta aurrekontu gaitako araubide juridikoa Nafarroako toki administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuetan ezartzen da.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Iruñeko Udalaren 2001eko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2001eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Zein zen udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera 2001eko abenduaren 31n.

e) Iruñeko Udalaren finantzen egoera-orrien informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen onargarritasuna eta koherentzia.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2000ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganberak eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketa programarekin bat, Iruñeko Udalaren finantzen egoera-orrien fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2001eko ekitaldiko aurrekontuaren

likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza eta diruzaintzako gerakina, bai eta egoera-orri horien informazio osagarria eta azalpen-oharrak, 2001eko ekitaldiari buruzkoak. Horrek barnean hartzen du udalaren eta bere erakunde autonomoen aurrekontu-likidazio bateratua eta udalaren, erakunde autonomoen eta osoki parte harturiko sozietatearen egoera-balantze bateratua. Gainerako udal entitateei dagokienez, gure helburua da kanpo auditoretzako txostenak aztertzea, horietatik ondorioak eta gomendioak ateratzeko.

Lana dirusarrera eta gastuei dagozkien atal ekonomikoen eta ondare-masa ezberdinen ikuskapenean gauzatu da, eta antolamendu, kontabilitate eta barne-kontrolerako gaiak aztertu dira.

Txostenean ez dugu aztertu Gazteluko Plazako aparkalekuaren espedientea. Espediente hau osatzen du esleipen bateratu batek, obrena eta zerbitzu publikoena; horrela, adierazitako obren eraikuntzari dagozkion ondorio juridikoak ezin izanen dira bereizi aparkalekua ustiatu eta kudeatzeko zerbitzu publikoa emateari dagozkion ondorioetatik.

Espediente honen tramitazioko funtsezko gaitzuetan (adibidez, baldintza-orriaren onespena, 2001eko esleipena, 2002. urteko aldaketa eta Viának Printzea Erakundearen zenbait ebazpen) errekurtsioak eta salaketak izan dira, arlo penalean, administratiboan eta administrazioarekiko auzienez. Honakoek aurkeztu dituzte horiek: Udaleko zinegotziek, aparkalekua eraikitzearen aurkako kolektiboek eta lehiaketan parte hartzen zuten enpresa batzuek.

Espediente honen tramitazio-prozeduraren zati handi bat "sub iudice" egotearen eta, beraz, aurkezturiko erreklamazioak oraindik ebazpen judizialaren zain egotearen ondorioz, komeni da Nafarroako Comptos Ganberak gai honi buruz ebazpenik ez ematea, ebazteko eskudun diren epai-organoen eginkizuna ez oztopatzeko; izan ere, haiei soilik dagokie, indarreko ordenamendu juridikoaren arabera, ekintza hauek guztiak legeari jarraitzen ote zaizkion epaitzea.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta arauak jarraituz burutu dugu lana eta, halaber, egoeraren arabera beharrezkotzat jo ditugun frogak guztiak ere egin ditugu.

Txostenean daude Udalaren eta haren erakunde antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Azterlana 2002ko uztailetik urrira bitartean egin dugu. Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei.

IV. IRITZIA.

Burururiko fiskalizazioaren barruan, 2001eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiari dagozkion Iruñeko Udalaren finantza-egoeraren orriak aztertu ditugu, zeinak Udalaren ardurapean egin baitira.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzia agertuko dugu:

IV.1. 2001eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI DAGOKIONEZ

Erantsi dugun 2001eko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak eta oharrek behar bezala agertzen dituzte, garrantzizkoak diren alderdi guztiak dagokienez, 2001eko abenduaren 31n exekutatutako zeuden gastu eta dirusarrerak.

IV.2. 2001eko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Erantsirik dagoen 2001eko abenduaren 31ko egoera-balantzeak eta oharrek behar bezala agertzen dute udalaren finantza- eta ondare-egoera, alde batera uzten badugu gaur egungo pentsio-ereduaren ondoriozko betebeharrak aktuarialak zenbatetsi ez izana.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, Udalaren jardura ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz burutu da.

IV.4. FINANTZA- ETA EKONOMIA-EGOERA 2001eko ABENDUAREN 31n

Udalaren aurrekontua 30.298 milioi pezetakoa izan zen; haren betetze-maila % 75ekoa izan zen dirusarreretan, eta % 80koa gastuetan; 22.728 milioi eta 24.363 milioi, hurrenez hurren. Baldin eta datu horiek udalaren eta bere erakunde autonomoen aurrekontu bateratuan oinarriturik aintzat hartzen baditugu, izandako dirusarrerak 31.605 milioi pezetara igotzen dira, eta gastuak, 33.289 milioira.

Aurrekontu bateratua erreferentzia gisa harturik, atal ekonomikorik garrantzitsuena inbertsioena da, 14.050 milioikoa da-eta; alegia, exekutututako guztiaren % 42. Inbertsioen garrantzi handi hori zor zaio Hirigintza Gerentziaren exekuzioari, 8.852 milioi pezetako zenbatekoa egin baitzuen. Soil-soilik udalaren exekuzioari so egiten badiogu, aurrekontuko 10.153 milioien % 52 errealizatu da; alegia, udalaren gastu-aurrekontuaren % 22.

Dirusarrerei dagokienez, transferentzia arruntak (% 31) eta kapital-transferentziak (guztizkoaren % 30) dira garrantzitsuenak.

Ekitaldi honetan, bete egin da Bideragarritasun finantzarioari buruzko Plana; horrela, finantzazama eta funtzionamendu gastuak dirusarrera arruntan bidez finantzatu dira, eta inbertsioak finantzatzeko gerakina ere badago.

Udal datuei begira, egoera ondokoa da:

	2001 (milioitan)	2000 (milioitan)
Aurrekontu emaitza doitua	- 618	-270,1
Zorpetze-maila	% 2,85	% 2,46
Zorpetze-muga	% 8,68	% 17,66
Aurrezpen gordina	1.639,7	3.515,8
Aurrezpen garbia	1.138,2	3.025,4
Diruzaintza-gerakina	2.589,8	4.353,2

2001eko datuak onargarritzat jo ditzakegu, zorpetze-ahalmena dagoelako eta aurrezpen garbi positiboa lortu delako; alabaina, datu horiek aurreko urtearekiko balizko aldaketa bat erakusten dute.

Zor biziaren zenbatekoa, 2001eko abenduaren 31n, 6.873 milioikoa zen; alegia, aurreko ekitaldiko 6.851 milioien ia guztiz parekoa.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orrien informazio osagarrian eta azalpen oharretan behar bezalako informazioa dago haiek ongi interpretatu eta ulertzeko.

IV.6. COMPTOS GANBERAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke Iruñeko Udalak pixkanaka praktikan jartzen dituela Comptos Ganberak bere txostenetan eginiko gomendioak.

Laburbilduz, eta ondorio orokor gisa, esan dezakegu udalak bere aurrekontuak behar bezala kudeatzen dituela administrazio ikuspegitik; fiskalizaturiko ekitaldian jadanik ez dugu adierazi beste

urte batzuetan aipatu ohi genuen salbuespena, inbentarioa eta ibilgetua elkarrekin bat ez etortze-ari buruzkoa; gorakada nabarmena gauzatu da inbertsioen exekuzioan, Hirigintza Gerentzian eginkoen garrantziaren ondorioz, zeinak 8.852 milioi pezetakoak izan baitira; eta finantza-egoera onargarria dauka, nahiz eta aurrezpen garbiak eta zorpetze-ahalmenak behera egin dutela antzematen den.

Aurrekontuen kontrola eta kudeaketa hobetzen jarraitzeko, Iruñeko Udalak hurrengoak egin behar ditu:

- *Bere aurrekontu-eredua aldatzeko prozesuarekin aurrera jarraitu, jardueraren helburuak eta adierazleak sartuz eta kudeaketan lortutako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia maila neurtu eta aztertzeko prozedurak ezarriz.*

- *Udaleko kudeatzaile lanpostua sortzeko aukera aztertu; alorren funtzionamendua zuzendu, arautu eta koordinatuko lituzke. Horrela, udal kudeaketaren benetako ahalmena handitu egingen litzateke.*

- *Kontabilitatea kudeatzen duen informatika-aplikazioa hobetzeko prozesuaren barruan, prozesu hori kudeaketarako tresna erabilgarri bat lortze aldera bideratzea, batez ere honako arloetan: inbertsioen jarraipena, bateratzea, zerga-eskakizunak eta kontsultak.*

- *Estandarizatu edo normalizatu bai kontratazio espedienteetako zenbait agiri –esaterako, klausula administratiboen pleguak eta txosten juridikoak–, bai aholkularitza juridikokoak. Jarduketa horiek, gainera, administrazio-tramitazioa azkartzeari ekarriko lukete.*

- *Jorratzeke dauden arloetan (langileak eta dirusarrerak, adibidez) eta udalaren mendeko erakundeekiko harremanetan kontu-hartzailatza departamentuak bete behar duen eginkizuna arautzea eta eginkizun hori adieraztea nolabaiteko agiri ofizial batean.*

- *Hitzarmenaren figura erabiltzea bi entitate edo gehiagok helburu bat lortzeko parte hartzen dutenerako soil-soilik, eta ez erabiltzea helburua dirulaguntzak ematea denean soilik.*

- *Foru Komunitatearen esparruan, Udal Montepioari behin betiko irtenbidea bilatzea.*

Halakoxeak dira txosten honetan bildutako gomendioak, eta udala horietako asko ezartzen ari da.

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Atal honetan, udalaren kudeaketari dagozkion gai batzuei buruzko zenbait iruzkin eta gomendio adieraziko ditugu, aurreko epigrafeko iritzia osatzen dutenak.

V.1. ANTOLAKETA OROKORRA

Arloen arteko koordinazioa errazteko eta udalaren kudeaketan uniformetasun handiagoa lortzeko, honako hau gomendatzen dugu:

- *Koordinaziorako gerentzia-tresnak ezartzea, ondokoei buruzkoak:*

- Prozedura Eskuliburueta prozedura, edukia eta azterketa bateratzeko jarraibideak. Horretaz ari garela, adierazi digute eskuliburuak kudeatzeko prozedurari buruzko arau batzuk prestatu direla ekonomia arloan, eta arlo guztiei helaraziko zaizkiela 2003an.*

- Arloen jarduketak justifikatzeko oroit-idazkien edukia eta horien maiztasuna.*

- Administrazio-espedienteen kudeaketa, edukia zein dokumentazioa, eta horien jarraipena.*

- Udalaren zerbitzu juridikoen jarduera, haiek aholkularitza txostenak eta azterlanak egiteko irizpideetan bat etortzeko premia denaz bezainbatean. Hartara, zerbitzu juridiko zentralizatu bat sortzearen egokitasuna aztertu beharko litzateke.*

2002an zehar, lehenengo aldiz, aurretiazko fiskalizazio mugatua osatu da geroagoko erabateko fiskalizazioko lanak eginez eta kasuan kasuko txostenak prestatuz. Hala eta guztiz ere, adierazi behar da erabateko fiskalizazioko lan horiek ezin izan direla osatu urte guztiko espedienteetarako.

Gomendatzen dugu erabateko fiskalizazioko proben zabaltasuna aztertzea, urte guztiko espedienteak berrikusi ahal izan daitezen.

V.2. LANGILEAK

Udalak 9.424 milioi pezetako gastu bat izan du, hau da, aurreko ekitaldian baino % 6,93 gehiago, urtean batez beste 2.572 pertsonari ordaintzeko, enpleguak eta pentsio-hartzaileak kontuan hartuta.

Horra lanetik ateratako gomendioak:

- *Langileen arloko prozeduren gaur egungo deskribapena eskuliburu batean formalizatzea, non modu bateratuan jasoko baitira une bakoitzean aplikatutakoak.*

- *Udal kontu-hartzaitzaren beharrianak bil-tzea aplikazio informatiko berrian, kontu-hartzaitza horrek fiskalizazio-lana egin dezan. Horretarako, langileen alorrean aplikatu beharreko prozedurak aldeztu aurretik definitu behar dira.*

- *Funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko legedia betetzea, merezimendu-lehiaketak eginez, eta ez, ordea, araudian aipatzen den urtebetea gainditzeko duten behin-behinekotasuneko egoerak mantenduz, non eta ez diren lanpostua gordetzeko eskubidea daukaten pertsonak.*

- *Lanpostuen deialdiak lan eskaintzan onetsita-koei eta lanpostu hutsei doitzea.*

- *Langileen espedienteak burutzea.*

- *Kontabilitaterako modulu bat sortzea, nominei buruzko kontsultak egitea errazteko.*

- *Ondare-erantzukizun zibileko aseguru poliza orokorrak udalaren beharrian guztiak hartu behar ditu barruan, horrela poliza osagarriak egin behar ez izateko.*

- *Foru Komunitateko Administrazioaren eta gainontzeko udal montepioen esparruan, behin betiko irtenbidea ematea horiei atxikitako funtzionarioei aplikatu beharreko erretiro eta pentsio sistemari. Horri buruz adierazi behar dugu 2002ko ekainean Nafarroako Comptos Ganberak txosten bat egin zuela Nafarroako Foru Komunitateko langileen montepioen egoerari buruz; azterlan horren kalkuluen arabera, Iruñeko Udaleko Montepioak jadanik sorturiko pentsioen egungo balioak 21.035 milioi pezeta egiten zuen.*

V.3. ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETA

Udalak 6.529 milioiko betetzea agertzen du; hau da, aurreko urtean baino % 8,41 gehiagokoa.

Horra lanetik ateratako gomendioak:

- *Erosketa sistemaren informatizazioa azkartu behar da, lehiaketa publiko zentralizatu bidezko erosketan aurrera egin ahal izan dadin.*

- *Garbiketa-kontratuan sartu behar dira sortzen diren inkorporazioak eta San Fermineko gastuen errepikapenak.*

- *Kaleko aparkaleku arautuaren espedientearen ondoriozko gastuen erregistroko eragiketarik behar bezala moztu behar dira.*

- *Etxeko Laguntza Zerbitzuaren kontratuak agertzen duen gorakada dela-eta, jarraipen-kontrolak tinkotu behar dira.*

V.4. TRANSFERENTZIAK

Udalak 1.855 eta 474 milioiko exekuzioa agertzen du arrunten eta kapitalekoen kasuan, eta aurreko urtearekiko gehikuntza % 19 eta % 108koa izan dute, hurrenez hurren.

Horra lanetik ateratako gomendioak:

- *Udalarekin harreman berezia daukaten erakundeak dirulaguntzak emateko irizpideak arautzea, eta adieraztea ea kasu horietan prozedura orokorrari jarraitu behar ote zaizkion ala kontu-sail berezi eta izendunak izan behar ote dituzten.*

- *Hitzarmenaren figura erabiltzea bi entitate edo gehiagok helburu bat lortzeko parte hartzen dutenerako soil-soilik, eta ez erabiltzea helburua dirulaguntzak ematea denean soilik.*

- *Nafarroako Gobernuarekin ados jarririk, definitu dadila nork hartu behar duen "Oficina de Congresos de Pamplona Convention Bureau, S.A." enpresa publikoa kontrolatzeko ardura. Izan ere, biek hartan kapitalaren % 30 daukatenez, inork ez dauka gehiengoa.*

V.5. INBERTSIOAK

Azken urteotan antzeman ahal izan da exekuzaturiko zenbatekoak etengabe gorantz egin duela; izan ere, 1998an 2.016 milioi pezetakoa izatetik, 2001ean 5.270ekoa izatera pasa da. Dena den, exekuzio hori ez da aurreikuspenen araberkoa, aurrekontuko kopuruaren % 52koa izan baita exekuzioa. Ekitaldi honetan eragin nabaria daukate Hirigintza Gerentziako inbertsioek; hori dela-eta, aurrekontu bateratuko (udala gehi erakunde autonomoak) inbertsioek 14.050 milioi pezeta egiten dute; hau da, aurreko ekitaldian baino % 164 gehiago.

Horra lanetik ateratako gomendioak:

- *Beharrezko aldaketen formalizazioa eta tramitazioa (obra berriaren unitateak, kontraesanezko prezioak eta abar) exekuzioaren aurretik onetsi behar dira.*

- *Aldeko txosten teknikoak daukaten epe-aldaketak organo eskudunak onetsi ditzala.*

- *Exekuzio-epean berandutzak izateagatik zehapenak ezarri direneko espedienteak ebaztea.*

V.6. DIRUSARRERAK

Udalak honako dirusarrerak hauek izan zituen 2001ean:

	Dirusarrerak (milioitan)	2000koekiko %
Tributuen bidezkoak	9.381	-4,45
Transferentziak	10.840	6,74
Gainerakoa	2.507	55,72
	22.728	5,35

Hona lanetik ateratako gomendioak:

- *Dirusarrerei dagokienez kontu-hartzailtzak egin beharreko fiskalizazioaren eredia ezartzea.*
- *Udal alorren eta kontabilitate departamentuaren arteko komunikazioa edo informazio trukea hobetzea, emaniko transferentzia guztiak sortzen-unean egoki erregistra daitezen.*
- *Ondare dirusarrerei dagokienez eragiketen mozketa egokia egitea.*

V.7. BESTELAKO ALORRAK

2001ean udal inbentarioaren zenbatekoak ibilgetuko kontabilitateko zenbakiei doitzeko lana egin da.

Horra lanetik ateratako gomendioak:

- *Ibilgetuko datuen berrikuspena egiten eta datu horiek inbentarioarekin alderatzen bukatzea, batez ere honakoei dagokienez: "erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak", "beste ente batzuei atxikiriko ondasunak", "jabetza publikoko ondasun jakin batzuk (Mendillorri) eta informatikako aplikazioak.*
- *"PFEZeko atxikipenak" eta "Nafarroako Gobernuak, osasun-laguntzagatik hartzekodun" kontuetako saldoak berrikusi eta, kasua bada, erregularizatzea.*
- *Zenbaketa-aktetan sartzeko banaketan kontuaren saldoa eta haiek hilabetero formalizatzea, kontabilitate-instrukzioan ezarritakoaren arabera.*
- *Banku-kontuen funtsak erabili ahal izateko, baterako sinadurak nahitaezkoa izan behar du.*

V.8. GORABEHERAK

Udalak eskainitako informazioaren arabera, 30.000 euro baino gehiagoko eduki ekonomikoa zeukaten 28 errekurtsu zeuden bertan, eta haiek guztira 7,8 milioi euroko kopuru zenbatetsia egiten zuten; halaber, beste bederatzi errekurtsu zeuden, non zenbatekoa zehazgabea baitzen; horien

artean zeuden Gazteluko Plazako aparkalekuari buruzkoak.

V.9. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Txosten honetako sarreran adierazi den bezalaxe, ekitaldi honetan sartu da eranskin gisa, lehenengo aldiz, udalak prestaturiko informazio gehigarri hau, eta horri buruzko iritzia positiboa daukagu. Dena den, eta informazio hori aurrerantzean hobetu eta osatzeko xedez, honakoak egin behar direla deritzogu:

- *Udalak sinaturiko kontratuen zenbatekoak eta datuak sartzeko.*
- *Menpeko organismo eta enpresei buruzko zenbateko nagusien eta haien egoeraren berri ematea, eta, kasua bada, haien kontu-ikuskaritzen emaitzak ere adieraztea.*
- *Datu bateratuak (udala eta organismoak) eta haien bilakaera adieraztea, batez ere gogoan izanik Hirigintza Gerentziaren jarduerak udalaren kontuentzat daukan garrantzia.*

V.10. UDALAREN MENPEKO ERAKUNDEAK

Epigrafe honetan aurkeztuko ditugu erakunde horien jardueraren datu nagusiak, aurkezturiko kontu-ikuskaritzak eta oroit-idazkien arabekoak, Udalaren menpeko jarduerak guztia ulertzea errazteko asmoz.

V.10.1. Haur eskolak. Puntu honetan, gasteak 719 milioi pezetakoak izan dira, eta dirusarrerak 692 milioikoak. Horrela, aurrekontuaren saldoa 27 milioikoa da.

Eginiko kontu-ikuskaritzan oniritzia adierazi da.

Erakunde hau bederatzi haur eskolak osatua da, eta 706 ikaspostu ditu, zeinak beteta egon baitira guztiak. Haietan 120 pertsonak (horietatik 13k lanaldi partzialean) egiten dute lan.

Ikaspostuak eta hezitzaile bakoitzeko haurren ratioa honakoak dira:

	Ikaspostuak	Ratioa
Bularreko haurrak (10 hilabete bitartean)	112	7
Ibiltzen badakitenak-Ertainak (11-23 hilabete)	342	8-11
Haurtzaindegikoak (24-30 hilabete)	252	16
	706	

V.10.2. Hirigintza Gerentzia

9.107 milioi pezetako gastuak izan ditu (horietatik 8.853, inbertsioen kapitulukoak), eta 9.084 milioiko dirusarrerak. Horrela, bada, -23 milioi pezetako aurrekontu-saldoa agertzen du. Diruzaintzako gerakina 3.723 milioikoa dauka, eta atxikirik daude horietatik 3.329. Gastu orokorretarako, 394 milioi pezeta gelditzen dira libre.

Eginiko kontu-ikuskaritzan oniritzia adierazi da.

Dena den, azpimarratzekoa da poligono bukatuak likidatu eta behin betiko itxi behar direla, eta sortzen diren saldoen erabilera zehaztu behar dela.

V.10.3. Animsa

Enpresa publiko honek 70 langile dauzka, eta bertan Iruñeko Udalak parte hartzen du, kapitalaren % 78,08an. Haren negozioaren zenbatekoa 741 milioi pezetakoa da, eta 1,6 milioi pezetako irabaziak lortu zituen. Eginiko kontu-ikuskaritzan oniritzia adierazi da.

V.10.4. Mercairuña

Enpresa honek, non udalak kapitalaren % 51 baitauka, ekitaldi ohiz kanpokoak izan zuen, sute baten ondorioz fruta, barazki eta arrainen merkataritza-erakina suntsitu egin baitzen. 2001ean kanpotik eginiko kontu-ikuskaritza baten oniritzia agertzen du, eta 668 milioi pezetako irabazia izan zuen. Horren zergatia izan zen, batez ere, aseguru-etxetik jaso zuen kalte-ordainaren eta galdutako ondasunen kontabilitate-balioen arteko aldea.

V.10.5. Comiruña

Iruñeko Udalak % 100eko parte-hartzea dauka enpresa honetan. 2001ean, ustiapeneko dirusarrerak 91 milioikoak izan ditu, eta galerak, 2,9

milioi pezetakoak. Eginiko kontu-ikuskaritzan oniritzia adierazi da.

V.10.6. Erruki Etxea

Erakunde hau ongintza- eta gizarte-izaerakoa da, eta 2001ean 48,5 milioi pezetako irabazia lortu zuen.

Abenduaren 31n, 537 pertsonari ematen zien zerbitzua. Haien batez besteko adina 82 urtekoa zen, eta haiei laguntza emateko, 226,5 langile erabili zituen 2001ean. Egoiliarren egonaldien ondoriozko dirusarrerak 703,5 milioi pezetako kopurua egin zuten.

Kanpotik eginiko kontu-ikuskaritzaren iritzian salbuespen bat adierazten da, izaera fiskaleko zalantza batek eragindakoa.

V.10.7. Gayarre Fundazioa

Erakunde honek bere kontuak aurkeztu zituen, baina ez, ordea, kanpotik eginiko kontu-ikuskaritzarik. 2001ean, 370 milioi pezetako dirusarrerak izan zituen, eta aurrekontu-emaizta 2,3 milioikoa izan zen.

Ekitaldi honetan 14 pertsonak lan egin zuten, eta 307 emanaldi egin ziren; horietara 167.699 pertsona bertaratu ziren. Beraz, emanaldi bakoi-tzean, batez beste, 546 pertsona izan ziren.

Gomendatzen dugu Gayarre Fundazioan kontu-ikuskaritza urtero egitea, gainerako erakundeetan bezalaxe.

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan hau egitearen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2003ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Foru Komunitatearen osasun gastuari buruzko aholkularitza txostena, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 24an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak eginiko Foru Komunitatearen osasun gastuari buruzko aholkularitza txostena, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Komunitatearen osasun gastuari buruzko aholkularitza txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (25. or.).
 - II. Helburua, norainokoa eta metodologia (26. or.).
 - II.1. Helburua (26. or.).
 - II.2. Norainokoa eta metodologia (26. or.).
 - III. Mugak (26. or.).
 - IV. Ondorio orokorrak (27. or.).
 - V. Osasun zerbitzuak emateari buruzko deskribapen orokorra (28. or.).
 - VI. Ekonomiari, jarduerari eta baliabideei buruzko datuen analisia. Haien bilakaera 1994-01 epean (29. or.).
 - VI.1. Osasun departamentuko datuen bilakaera 1994-2001 (29. or.).
 - VI.2. Datuen analisia (33. or.).
 - VII. Alderaketa beste zenbait erkidegorekin (34. or.).
 - VIII. Balizko jokabideei buruzko iradokizunak (35. or.).
 - VIII.1. Gastuan eragitea (35. or.).
 - VIII.2. Dirusarreran eragitea (36. or.).
 - VIII.3. Beste alderdi batzuetan eragitea (36. or.).
- Anexo I. Osasun-aurrekontuaren aldakuntza 1991-2002 epean (37. or.).
- Anexo II. Insalud-Nafarroa adierazlearen alderaketa, 1994-2001 (38. or.).
 - II.1. Oheak/1.000 biztanleko (38. or.).
 - II.2. Laguntza espezializatuko kontsulta/1.000 biztanleko (38. or.).
 - II.3. Ospitaleratzeak/1.000 biztanleko (39. or.).

II.4. Larrialdiak/1.000 biztanleko (39. or.).

II.5. Ebakuntzak/1.000 biztanleko (40. or.).

II.6. Eragiketa arrunten ondoriozko per capita gastua (40. or.).

I. SARRERA

2002ko uztailaren 17an, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak uztailaren 3an hartutako erabakia sartu zen Nafarroako Comptos Ganberako erregistro orokorrean. Horren bidez eskatzen zen, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen ekimenez, aholku emateko txosten bat ematea Nafarroako Foru Komunitatearen osasun gastuari buruz.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, aurkeztu zuen idazkian, bere proposamena justifikatzeko hauxe esaten zuen: "jakin ahal izan dugu joan zen 2002ko ekainaren 17an Nafarroako Gobernuak erabaki bat hartu zuela –ez du horren berri eman– Osasunbidearen gastuak murrizteko eta Osasun Departamentuari gastu konpromiso gehiago hartzeko aukera ukatzeko, osasun arloko gastuak BPG nominaletik askoz gorago dagoen urteko gehikuntza metagarria izan duelako eta azken urteotan desbideraketa gero eta handiagoa izan delako".

"Gobernuaren erabaki horrek, Osasun kontseilariari etorkizuneko planak eta proposamenak egitea debekatu eta haren eginkizunak nabarmen mugatzen baititu, kontrolik ezaren egoera uzten du agerian osasun arloko gastuari dagokionez, 2001 eta 2002. urteetan larriagotua; egoera horrek kalte handia eraginen du Nafarroako Foru Komunitateko osasun publikoaren erabiltzaileengan, Gobernuak hartutako erabaki horretan proposatu egiten delako oztopo handiagoak jartzea "kostu bereziki handia duten medikamentuak emateko" eta adierazten delako "familiako sendagilea, pediatra, ginekologoa eta psikiatra libreki hautatzeari buruzko foru dekretua" gaurko edo geroko aurrekontuetan zein ondorio ekonomiko izanen dituen jakin gabe onetsi dela."

Horregatik, Parlamentuko Taldearen iritziz, Nafarroako Comptos Ganberak "aholku emateko txosten bat egin beharko luke, Nafarroako Parlamentuak xehetasunez jakin ahal izan dezan zein den osasun gastuaren egoera gure Komunitatean, eta zer aukera dituen Osasun departamentuak bere proposamen eta jarduketa planetan hartzen

ari den konpromisoak aurrekontuetan sartu ahal izateko”.

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak 2002ko abuztuaren 22an emandako ebazpenaren bitartez, eskaera hori 2002rako lan-egitarauan sartu zen.

II. HELBURUA, NORAINOKOA ETA METODOLOGIA.

II.1. HELBURUA

Txostenaren helburua da Parlamentuak egini-ko eskaera horri erantzutea. Bi puntutan laburbil daiteke:

- a) Osasun gastuaren azterketa.
- b) Konpromiso berriak aurrekontuetan sartu ahal izateko aukerak.

II.2. NORAINOKOA ETA METODOLOGIA

Lan hau egiteko abiapuntu gisa hartu dugu 1994tik 2001era bitartean Nafarroako Gobernuak eta Osasun Departamentuak izandako aurrekontu-betetzea. Epe hori hartu dugu, hain zuzen ere, iruditu zaigulako 1990ean osasun-eskumenak eskuratzeaz geroztiko lehen urteetan zenbait gastu egon ahal izan direla, bi osasun-sareen berrantolamenduaren ondorioz sortuak.

2001eko kontu orokorreki buruz ganbera honek eginiko txostenean esaten denez, ekitaldi horretan kontabilizatu gabe utzi ziren 3.826 milioiko zenbatekoa egiten zuten osasun-gastuak. Horregatik, kasu batzuetan txostenean iruzkin batzuk egiten dira datu ofizialei eta zuzenduriko datuei buruz.

Halaber, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak urte horiei buruz eginiko oroit-idazkiak ere aztertu dira.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko arduradunekin elkarrizketak egin dira, eta beharrezkoak izan diren datuak, informazioa eta azalpenak eskatu zaizkie haiei.

Beste erkidego batzuetako datuei dagokienez, Insaluden argitalpenak erabili dira, hala nola oroit-idazkiak eta “Laguntza espezializatua. Adierazle- en bilakaera, 1991-2001” izenekoa.

Halaber, indarreko araudia ere aztertu da, herritarren eskubideak eta administrazioak osasun laguntza publikoaren kasuan dituen betebeharrak ikertzeko xedez.

1994-2001 epean zenbait osasun-adierazlek izandako bilakaera aztertu dugu.

Analisi horretatik egoki diren ondorioak atera dira, eta lana osatzeko, zenbait iradokizun adierazten dira egin beharreko balizko jardueri buruz, baldin eta proiektu berriei ekin ahal izateko baliabideak libre uzteko asmoa badago.

III. MUGAK.

Honako gai hauek eragina daukate txosten honetan:

- BPGko datuen behin betiko argitarapena atzerapenez egiten da; hori dela-eta, eskueran izandako datuak erabili dira: kasu batzuetan behin-behinekoak eta aurrerapenak ziren, Espainiako Kontabilitate Erregionalekoak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eskainiak.

- Beste erkidego batzuetako datuak Insaluden argitalpenetatik lortu dira. Osasunari dagokionez, administrazioek ez dituzte beti irizpide berberak erabiltzen euren dokumentu eta oroit-idazkiak prestatzean; horregatik, litekeena da horiek beti homogeenak ez izatea. Bestalde, gogoan izan behar da autonomia erkidegoek urte haietan euren aurrekontuen karguko gastuak egiten zituztela osasun arloan, nahiz eta arlo horretako esku- menak transferituak ez izan.

- Plantilla aztertzean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko datuak erabili dira. Gogoan izan behar da Osasun Departamentuko gainerako langileen gastua ehuneko bi baino txikiagoa dela; horregatik, nahiz eta plantilla osoa aintzat ez hartu, egon daitezkeen aldeak ez dira, gure ustez, esanguratsuak.

- Osasun zerbitzu baten kalitatea balioetsi eta alderatu ahal izateko eta, azken batean, gastua handiagoa edo txikiagoa izateak kalitate handiago edo txikiagoa erakartzen ote duen, eta zein ehunekotan, ikusi ahal izateko adierazleak egotearen konstantziarik ez daukagu.

Gainera, gogoan izan behar da ezen zenbait urteko denbora-epe bati dagozkion aurrekontu- exekuzioko datuek jasotzen dituztela herritarrari ematen zaizkion zerbitzu publikoen aldaketak eta administrazioaren eskumenen aldaketak eragiten dituzten ondorioak.

Auditore batek eta auditoretza-teknikari bik osaturiko taldeak burutu du lana, 2002ko azaroan eta abenduan. Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntza ere izan dute.

Osasun Departamentuko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzagatik.

IV. ONDORIO OROKORRAK

Eginiko lanaren laburpen gisa, jarraian ondorio orokorrak aditzera ematen ditugu. Ondorio horiek hurrengo epigrafeetan garaturik daude.

- Osasunaren babeserako eskubidea Espainia-ko Konstituzioak jasotzen du "politika sozial eta ekonomikoaren printzipio zuzentzaileak" izenburupean. Beraz, ez da oinarrizko eskubide bat, eta erregelamendu-arau baten bidez zehazten da.

Nafarroaren kasuan, Osasunari buruzko Foru Legeak adierazten du eskainitako prestazioak izanen direla, gutxienez ere, gizarte segurantzako osasun-zerbitzuek une bakoitzean ezarritakoak.

- 1994tik 2001era bitartean, osasun-gastuaren hazkuntza Nafarroako Gobernuaren gastuarena baino baxuagoa da, bai ikuspegi orokor batetik bai munta handieneko gastuenetik (langileak eta ondasunen eta zerbitzuen erosketak) ere, ondoko taulan ikus daitekeen bezala:

	1994	2001	Gehikuntzaren %, 2001/1994
Osasun arloko langileak	32.010	46.656	45,8
Osasun arloko erosketak	12.999	20.932	61,0
Osasun arloa, guztira	56.855	88.901	56,4
Gobernuko langileak	71.151	110.521	55,3
Gobernua, erosketak	20.699	33.834	63,5
Gobernua, guztira	228.171	397.840	74,4

1994tik 2001era bitartean, Osasun Departamentuak Nafarroako Gobernu osoaren baitan duen pisu bereziak behera egin du, 1994an ehuneko 24,9koa izatetik 2001ean ehuneko 22,3koa izateraino.

- Aipaturiko epe horretan, jarduerak gorakada izan du kontsulta, ospitaleratze, ebakuntza eta larrialdiei dagokienez; aldiz, egonaldiak eta oheek beherakada izan dute, ondoko taulan ikus daitekeen bezala:

	1994	2001	Gehikuntzaren %, 2001/1994
Oinarrizko osasun laguntzako kontsultak	2.612.773	2.781.674	6,5
Laguntza espezializatuko kontsultak	675.915	870.818	28,8
Ospitaleratzeak	47.58	53.098	11,6
Larrialdiak	184.862	239.195	29,4
Egonaldiak	393.062	383.839	-2,3
Oheak	1.472	1.396	-5,2
Ebakuntzak	29.447	42.503	44,3

Jarduera hori egin da epe horretan langilekopuruaren hazkuntza % 17,4koa izanik.

- Osasun arloko gastuen multzoaren barrenean, 1994-2001 epe horretan hazkuntzarik handiena izan duen gastu-kontzeptua medikamentuena izan da. Medikamentuak har daitezke zuzenean, osasun-etxeetan, edo medikuek horretarako emandako errezeten bitartez. Lehen kasuan, 2001ean eginiko gastua 3.579 milioi pezetakoa izan zen, eta hazkuntza, ehuneko 120koa. Biga-

renean, gastua 16.917 milioikoa izan zen, eta hazkuntza, ehuneko 84koa.

- Insalud esparruko erkidegoei dagokienez, aipaturiko epean, Nafarroak 1.000 biztanleko ohekopurua jaitsi du eta laguntza espezializatuko kontsulten eta ebakuntzen kopurua igo du. Gutxiago hazi da 1.000 biztanleko ospitaleratze eta larrialdien atalean, nahiz eta Insaludekoen gaitetik dagoen; eragiketa arrunten per capita gastuak antzeko bilakaera izan du, eta Insalude-

koen gastuarekin konparatuz, zegoen aldeak bere horretan segitzen du, Nafarroaren mesedetan.

- Aurrekontuetan konpromiso berriak sartzeko ahalmenaz denaz bezainbatean, esan behar da ezen aurrekontuak, ez Osasun Departamentuarenak, baizik eta Nafarroako Gobernuarenak, multzo bat osatzen duela, eta, hortaz, departamentu bakoitzari baliabideak atxikitzea borondate politikoko egintza bat dela, Nafarroako Parlamentuak berretsia.

Logikoa denez, zerbitzu berriak sartzeak finantzaketa-beharrizan batzuk ekartzen ditu. Finantzaketa hori lor daiteke departamentuko beste zerbitzu batzuk desagertzearen bidetik, departamentuaren beste gastu batzuetan aurretuz, dirusarrera berriak izanez edo departamentuen artean baliabideak beste era batean atxikiz.

V. OSASUN ZERBITZUAK EMATEARI BURUZKO DESKRIBAPEN OROKORRA

Epigrafe honetan legearen ikuspegitik gaingiroki laburbilduko ditugu herritarren osasuna babesteari dagokionez administrazioak dituen eskubide eta betebeharrak.

Espainiako Konstituzioaren (E.K.) 43. artikulua osasuna babesteko eskubidea aitortzen du, eta botere publikoei agintzen die osasun publikoa zain dezaten, aurre neurriak eta behar diren zerbitzu eta prestazioak antolatuz. Legeak ezarriko ditu esparru horretan guztiek dituzten eskubide eta betebeharrak.

Arau hori jasota dago E.K.ko lehen tituluko III. kapituluan, "Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio zuzentzaileak" izenburupean. "Eskubide sozial" deritzenetako bat da, eta ez norbanakoaren oinarritzko eskubide edo publikoen eta politikoen multzokoa, zeinak E.K.ko lehen tituluko II. kapituluan araututa baitaude. Ez du eragiten herritarren egiazko eskubide subjektibo baten sorrera, baizik eta botere publikoei zuzenduriko agindu bat. Printzipio hutsak dira, eta haien eraginkortasuna mugatzen da legedi positiboa, epaileen jarduna eta botere publikoen jokabidea gidatzera. Lege bidez zehazturiko eskubideak dira. Estatuak lege batean aitortzen ez dituen arte, ez dira baldagarriak ez jurisdikzio arruntean ez konstituzionalean (E.K.ko 53.3 artikulua), aipaturiko II. kapituluan jasotako oinarritzko eskubide eta askatasun publikoak ez bezala, zeinak bereziki babestuta baitaude, E.K.ko 53.1 eta 2 artikuluen arabera.

E.K.ak ez du taxutzen Estatuak eskaini beharreko prestazio-sistema; bakarrik ziurtatzen du halako sistema bat egotea. Beraz, eskubide soziala legegintzatik eta administrazio-jardueratik

jaioko da, eta botere publikoek jardun ahal izateko esparru zabala daukate, E.K.ak ez baitu mugatzen. Teorikoki, zerbitzu eta prestazioak bestelako moduetan antolatu ahalko ziren.

Hala ere, osasun kolektiboa babestera zuzenduriko osasun-zerbitzu publikoen errealitate konplexu bat bazen jadanik, Osasun Zuzendaritza Nagusian gauzatua, eta Estatu, probintzia eta toki esparruko establezimenduak zituen, zein bere aurrekontuen bidez finantzatua. Bestetik, osasun prestazio indibidualizatua zegoen, Gizarte Segurantzak bere afiliatuei emana, eta kontribuzio bidez finantzatua.

E.K.ak berrikuntza kontzeptuala ezarri zuen arlo honetan, 41. eta 43. artikuluetan gizarte segurantza eta osasunaren babesa bereizi egin baitzituen. Joera horren ondorioz, bereizi egiten dira, batetik, osasuna (INSALUD), bestetik, Gizarte Segurantza (INSS), eta, azkenik, gizarte zerbitzuak (INSERSO), Gizarte Segurantzaren beraren barnean.

1986ko Osasunari buruzko Lege Orokorrak (L.G.S.) Konstituzioko 43. artikuluko agindua gauzatzen du. Osasun Sistema Nazional bat sortu zuen, autonomia erkidego bakoitzeko osasun zerbitzuak koordinatuz; hain zuzen ere, horiei Estatuaren eta Insaluden zentro eta zerbitzu guztiak transferitu zitzaizkien, eta aipaturiko azken horiek Gizarte Segurantza, aldundi, udal eta abarretatik erauzi ziren. Pixkanaka, gaur egungo eredura iritsi zen, honako xede hauek dituen: pertsona guztiak barnean hartzea, tributu bidezko finantzaketa publikoa eta autonomia erkidegoen bidezko kudeaketa deszentralizatua. Sistema horrek behartzen du Estatu guztian osasun zerbitzu publikoak eskuratzean egiazko berdintasuna izan dadin eta batzuen eta besteen arteko aldeak zuzendu daitezken; halaber, gai honetan herritarrek dauzkaten eskubideak ezartzen ditu.

Nafarroak, dituen eskumenak direla-eta, 1990ean onetsi zuen Osasunari buruzko Foru Legea (O.F.L.), LGSren manuei, zeinak oinarritzotzat jotzen baitziren, jarraikiz. Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzua (O-NOZ) eratu zuen, eta herritarren eskubideak ezarri zituen; besteak beste, osasun laguntza pertsonal eta indibidual egokirako eskubidea, baliabideen eskuragarritasunaren araberakoa. Osasun laguntza egokitzat jotzeko irizpideak ez daude ezarrita ez OFLan, ez eta LGSn ere. Araubide komunean, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorrak, 1974koa eta oraindik indarduna baita, adierazten du osasun laguntza emanen dela erregelamendu bidez zehaztuko diren zabaltasunaz, iraupenaz eta baldintzekin. Sistema nazionalarentzat nahita-

ezkoak diren osasun prestazioak zenbait errege-lamendutan ezartzen dira; bereziki, 63/1995 Errege Dekretuan, Osasun Sistema Nazionalako Osasun Prestazioen Antolamenduari buruzkoan (ROPS).

OFLk adierazten duenez, Nafarroan eskainitako osasun laguntzako prestazioak izanen dira, gutxienez ere, gizarte segurantzako osasun zerbitzuek une bakoitzean ezarritakoak. Beraz, Nafarroan, osasun babesaren gutxieneko muga, edo "behea", ROPSek ezarritako prestazioek osatzen dute, eta gehieneko muga lortzen da zenbait prestazio osagarri gehituz (prestazio horiek foru araudiak ezarriak dira, OFLko 5.14 artikulua eta ROPSeko bosgarren xedapen gehigarriaren indarrez). Herritarren egiazko osasun eskubideak horrela zehazturiko prestazio zehatz horiek dira; orain bai, epaileen bidez galdagarriak.

Begi-bistakoa denez, eskubide horietan erraz eragin dezake administrazioak, erregelamendumailako arauetan ezarritik baitaude. Auzitegi Gorenak behin baino gehiagotan adierazi izan du ezen administrazioaren jarduerak, osasun laguntza emateari dagokionez, aurrez ezarritako arau batzuen araberakoa behar duela izan, emandako zerbitzuen eraginkortasun eta berdintasuna, bate-tik, eta sistemak beharrezko duen finantza-egonkortasuna, bestetik, bermatzeko. Horrek agerian uzten du nahitaezko laguntza horrek berezko muga batzuk dituela onartzen dela. Administrazioak zilegi du prestazioak mugatzea, eskueran dauden baliabideei egokituriko babesa eta babesturiko biztanleen artean baliabide horiek berdintasunez banatzen direla bermatzeko bide gisa.

Nafarroan osasun laguntzaren prestazio-sistema egituratuta dago kontseilari batek zuzendutako departamentu baten eta zenbait erakunde autonomoren bitartez; hori horrela, begi-bistakoa da horien jarduera osoki lotzen zaiola Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeari, eta beraz, aurrekontu-diziplinari. Horrela, Osasunari buruzko Foru Legeak 5. artikuluan adierazten du "...Osasun laguntza egokia izateko, banakako eta kolektiboen beharrei egokitua, dauden baliabideen arabera". Aurrerago, 75. artikuluan, hauxe dio: "Nafarroako aurrekontu orokorretan kontsignatuko dira kontu-sailak, Foru Lege honek Foru Komunitateko Administrazioari esleitzen dizkion osasun zerbitzu, iharduketa eta laguntzetatik heldu diren gastuak ordaintzeko adinakoa izanen direnak". Azken gai hori hauxe besterik ez da: Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeko arau orokorraren

gauzatzea osasunaren arloan. Izan ere, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeak 30. artikuluan adierazten du: "aurrekontuek honako hau izanen dute:

a) Gastuen egoera eta horien barrenean, behar bezala zehazturik, obligazioei aurre egiteko behar diren kredituak."

Halaber, OFLko 68. artikulua baieztazen du Osasunbidearen aurrekontuaren egitura, burutze prozesua, exekuzioa eta likidazioa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean agindutakoak zuzenduko duela, Osasunbidearen barneko kontu-hartzailatza funtzioa bezalaxe.

Ondorioz, erregelamendu bidez taxaturiko eskubide bat da eta, beraz, ikuspegi hertsiki juridiko batetik erraz aldatzeko modukoa. Ezin zaie parekatu oinarritzko eskubide deritzenei, banakakoenei edo publikoei eta politikoei, Konstituzioko II. kapituluko 1. atalean jasoak, eta aurrekontuei buruzko araudiari lotuta dago.

Zerbitzu horiek emateko, Nafarroako osasun sareak, oro har, honako baliabide hauek ditu:

- Bi ospitale orokor, hirugarren mailadunak.
- Eskualde-esparruko bi ospitale.
- Ortopedia eta errehabilitazioko ospitale monografiko bat.
- Laguntza espezializatuko bost anbulatorio.
- 53 osasun etxe eta 210 kontsultategi:
- Emakumeei laguntzeko zortzi zentro.
- Adimen osasuneko zortzi zentro.
- Eguneko lau ospitale.
- Zentro psikogeriatriko bat.

Osasun Publikoaren Institutuak eta Odol Bankuak emandako zerbitzuak ere eskura daude, eta beste osasun-zentro pribatu batzuekin sinaturiko kontzertuak ere badaude.

VI. EKONOMIARI, JARDUERARI ETA BALIABIDEEI BURUZKO DATUEN ANALISIA. HAIEN BILAKAERA 1994-01 EPEAN

Epigrafe honetan aurkeztuko dugu ekonomiari, jarduerari eta baliabideei buruzko datu-multzo bat, gauzaturiko jardueraren bilakaera eta erabilitako baliabideak aztertzeko bidea emanen diguna. Halaber, adierazle jakin batzuek izandako bilakaera aztertuko dugu, Insaluden mende zeuden beste autonomia erkidego batzuetakoekin alderatuta.

VI.1. OSASUN DEPARTAMENTUKO DATUEN BILAKAERA 1994-2001

IZENA	1994	1995	(n-1)ekikiko	1996. urtea	(n-1)ekikiko	1997. urtea	(n-1)ekikiko	1998. urtea	(n-1)ekikiko	1999. urtea	(n-1)ekikiko	2000. urtea	(n-1)ekikiko	2001. urtea	(n-1)ekikiko	1994tikiko
1. kapituluak, guztira	32.009.773.506	32.717.352.282	2,2%	34.479.832.081	5,4%	36.477.761.462	5,8%	38.367.753.882	5,2%	40.566.415.961	5,7%	43.244.390.981	6,6%	46.655.901.804	7,9%	45,8%
2. kapituluak, guztira	12.998.614.866	13.219.768.279	1,7%	13.821.227.357	4,5%	15.345.192.236	11,0%	16.196.281.946	5,5%	17.337.304.999	7,0%	18.588.848.824	7,2%	17.981.970.384	-3,3%	38,3%
4. kapituluak, guztira	9.671.828.666	10.154.869.607	5,0%	11.231.208.487	10,6%	12.205.138.793	8,7%	13.624.353.370	11,6%	15.220.536.901	11,7%	16.352.954.585	7,4%	16.741.360.803	2,4%	73,1%
Departamentuko gastu arunetak	54.680.217.038	56.091.990.168	2,6%	59.532.267.925	6,1%	64.028.092.491	7,6%	68.188.369.198	6,5%	73.124.257.861	7,2%	78.186.194.390	6,9%	81.379.232.991	4,1%	48,8%
Gastu arunetabiztanle	102.621	104.612	1,9%	114.359	9,3%	122.995	7,6%	128.459	4,4%	135.916	5,8%	143.789	5,8%	146.296	1,7%	42,6%
Kodekon 2215 "ospitale farmakoak"	1.629.681.463	1.602.682.420	-1,7%	1.803.552.495	12,5%	2.155.303.253	19,5%	2.463.623.539	14,3%	2.759.838.329	12,0%	3.346.880.418	21,3%	2.123.632.632	-36,5%	30,3%
Kodekon 4809 "Familiak eia paritik."	9.199.431.188	9.710.798.422	5,6%	10.751.404.790	10,7%	11.687.763.577	8,7%	13.086.684.073	12,0%	14.604.563.327	11,6%	15.647.463.441	7,1%	16.040.416.343	2,5%	74,4%
6. kapituluak, guztira - Inbertsioak	1.982.139.905	1.958.609.063	-1,2%	1.998.913.045	2,1%	2.557.620.281	28,0%	3.401.498.340	33,0%	3.497.341.443	2,8%	4.126.550.352	18,0%	3.590.647.125	-13,0%	81,2%
OBRAK(6019+6020+6021)	1.104.874.029	993.697.111	-10,1%	850.327.273	-14,4%	1.434.482.914	68,7%	1.666.975.456	16,2%	1.890.091.771	13,4%	2.364.724.717	25,1%	2.013.266.323	-14,9%	82,2%
6. kap., gainerakoa	877.265.876	964.911.942	10,0%	1.148.585.772	19,0%	1.123.137.367	-2,2%	1.734.522.884	54,4%	1.607.249.672	-7,3%	1.761.825.635	9,6%	1.577.380.802	-10,5%	79,8%
Osasun Departamentuak, guztira	56.854.741.841	58.247.244.268	2,4%	61.714.758.135	6,0%	66.809.079.350	8,3%	71.725.084.252	7,4%	76.732.340.180	7,0%	82.424.230.600	7,4%	85.074.212.266	3,2%	49,6%
BPG, merkatuko prezioetan	1.240.363.371.320	1.322.448.074.170	6,62%	1.322.448.074.170	6,62%	1.416.462.819.610	7,11%	1.508.001.574.990	6,46%	1.591.514.036.110	5,54%	1.745.075.003.230	9,65%	1.842.594.336.990	5,59%	
Osasun Dep./BPG, (%)	4,70%	4,70%	0,0%	4,67%	-0,6%	4,72%	1,1%	4,76%	0,8%	4,82%	1,4%	4,72%	-2,0%	4,62%	-2,2%	
Ospitale-farmakoak/egonaldi	4.146	4.015	-3,2%	4.478	11,5%	5.380	20,2%	6.127	13,9%	6.910	12,8%	8.618	24,7%	5.533	-35,8%	33,4%
Errezeten gastu/biztanle	17.265	18.111	4,9%	20.653	14,0%	22.452	8,7%	24.654	9,8%	27.146	10,1%	28.777	6,0%	28.836	0,2%	67,0%
Errolako biztanleia	532.836	536.192	0,6%	520.574	-2,9%	520.574	0,0%	530.819	2,0%	538.009	1,4%	543.757	1,1%	556.263	2,3%	4,4%
Nafarroako Gobernua																
1. kapituluak, guztira	71.150.703.033	73.515.152.711	3,3%	78.335.928.999	6,6%	83.311.432.496	6,4%	87.676.585.858	5,2%	93.065.032.869	6,2%	101.552.055.465	9,1%	110.520.879.793	8,8%	55,3%
2. kapituluak, guztira	20.699.117.834	21.189.123.468	2,4%	22.396.534.658	5,7%	24.627.582.801	10,0%	26.181.583.568	6,3%	28.245.029.708	7,9%	30.593.391.825	8,3%	30.883.502.582	0,9%	49,2%
Nafarroako Gobernuaren gastuak, guztira	228.170.712.000	240.967.768.000	5,6%	253.093.439.060	5,0%	273.946.492.591	8,2%	338.987.785.000	23,7%	349.165.198.000	3,0%	379.630.600.000	8,7%	394.013.360.252	3,8%	72,7%

*2001eko zenbatekoari 3.826 milioi gehitu behar zaizkio, 2002n kontabilizatuak, aurrekontu-konfirmazioak ez egoteagatik.

IZENA	1994. urtea	1995. urtea	(n-1)etikiko	1996. urtea	(n-1)etikiko	1997. urtea	(n-1)etikiko	1998. urtea	(n-1)etikiko	1999. urtea	(n-1)etikiko	2000. urtea	(n-1)etikiko	2001. urtea	(n-1)etikiko	1994.etikiko
Jarduera																
Medikuntza Orkorreko Kontsulta Kopurua	2.306.110	2.358.386	2,27%	2.351.015	-0,31%	2.335.922	-0,64%	2.684.010	14,90%	2.196.804	-18,15%	2.224.920	1,28%	2.362.909	6,20%	2,5%
Pediatriako Kontsulta Kopurua	306.663	322.783	5,26%	332.881	3,04%	311.706	-6,28%	370.838	18,97%	393.029	5,98%	420.932	7,10%	418.765	-0,51%	36,6%
Oinarritxo Laguntzako Kontsultak, guztira	2.612.773	2.881.169	2,62%	2.683.896	0,09%	2.647.628	-1,34%	3.054.848	15,38%	2.589.833	-15,22%	2.645.852	2,16%	2.781.674	5,13%	6,5%
Oinarritxo Laguntzako Kontsultak/1.000 biztanle	4.904	5.000	1,98%	5.155	3,09%	5.086	-1,34%	5.755	13,15%	4.814	-16,36%	4.866	1,08%	5.001	2,77%	2,0%
Laguntza Espezializatuko Kontsultak, guztira	675.915	681.140	0,77%	705.344	3,55%	715.950	1,50%	737.650	3,03%	775.148	5,08%	819.267	5,69%	870.818	6,29%	28,8%
Laguntza Espezializatuko Kontsultak, guztira/1.000 biztanle	1.269	1.270	0,14%	1.355	6,66%	1.375	1,50%	1.390	1,04%	1.441	3,66%	1.507	4,57%	1.565	3,90%	23,4%
Ondrengo kontsultak/lehenengo kontsultak	2,13	2,27	6,57%	2,17	-4,41%	2,23	2,76%	2,15	-3,59%	1,94	-9,77%	1,93	-0,52%	1,80	-6,74%	-15,5%
Kontsultak (Oinarritxo Laguntza-Laguntza espezializatua)/Langile fakultatiboak	2.151	2.209	2,71%	2.160	-2,23%	2.058	-4,70%	2.186	6,19%	1.897	-13,22%	1.895	-0,12%	2.040	7,70%	-5,1%
Ospitalerazteak	47.584	49.316	3,64%	51.579	4,59%	51.968	0,75%	51.781	-0,36%	52.347	1,09%	52.888	1,03%	53.088	0,40%	11,6%
Ospitalerazteak/1.000 biztanle	89	92	2,99%	99	7,73%	100	0,75%	98	-2,28%	97	-0,26%	97	-0,03%	95	-1,86%	6,9%
Egonaldiak kopurua	383.062	399.196	1,56%	402.794	0,90%	400.602	-0,54%	402.069	0,37%	399.402	-0,66%	388.366	-2,76%	383.839	-1,17%	-2,3%
Egonaldiak/1.000 biztanle	738	745	0,92%	774	3,93%	770	-0,54%	757	-1,57%	742	-1,99%	714	-3,79%	690	-3,39%	-6,5%
Ebakuntza programatuak	23.771	24.926	4,86%	27.035	8,46%	29.262	8,24%	28.765	-1,70%	30.253	5,17%	32.685	8,04%	34.325	5,02%	44,4%
Larrialdietako ebakuntzak	5.676	5.651	-0,44%	7.408	31,09%	8.295	11,97%	8.410	1,39%	8.225	-2,20%	8.721	6,03%	8.178	-6,23%	44,1%
Ebakuntzak guztira/1.000 biztanle	55	57	3,19%	66	16,02%	72	9,04%	70	-2,83%	72	2,12%	76	6,47%	76	0,34%	38,3%
Ebakuntzak guztira/Lag. Espezializatuko fakultatiboak	32	33	3,05%	37	12,40%	41	9,04%	39	-4,22%	40	1,91%	45	12,59%	46	2,54%	42,3%
Larrialdiak	184.862	201.314	8,90%	207.023	2,84%	213.822	3,28%	223.041	4,31%	227.686	2,08%	231.885	1,84%	239.195	3,15%	29,4%
Larrialdiak/1.000 biztanle	347	375	8,22%	398	5,92%	411	3,28%	420	2,30%	423	0,72%	426	0,77%	430	0,83%	23,9%
Ohe kopurua	1.472	1.460	-0,82%	1.459	-0,07%	1.458	-0,07%	1.457	-0,07%	1.429	-1,92%	1.406	-1,61%	1.396	-0,71%	-5,2%
Oheak/1000 biztanle	2,76	2,72	-1,44%	2,80	2,93%	2,80	-0,07%	2,74	-2,00%	2,66	-3,23%	2,59	-2,65%	2,51	-2,94%	-9,2%
Laguntza espezializatua pisu-unitateetan	100.039	103.449	3,41%	107.596	4,01%	109.441	1,71%	115.211	5,27%	120.600	4,68%	125.338	3,93%	130.423	4,06%	30,4%
Pisu-unitate bakoitzeko kostua (pezetak).	288.197	289.428	0,43%	294.403	1,72%	305.751	3,85%	305.451	-0,10%	312.257	2,23%	324.270	3,85%	334.985	3,30%	16,2%
Pisu-unitate kopurua/laguntza espezializatuko fakultatibo	109,1	112,0	2,63%	116,2	3,78%	118,2	1,71%	120,4	1,86%	124,1	3,06%	134,9	8,74%	140,2	3,95%	28,5%
Pisu-unitate kopurua/laguntza espezializatuko langile	19,9	20,6	3,51%	21,0	1,98%	21,2	0,83%	21,5	1,46%	21,3	-0,89%	22,5	5,44%	22,6	0,71%	13,6%

(1) Oinarritxo laguntza, errepikatzen diren zenbait egintza (errezeta-ematea, ezgaitasunak eta abar) administrazio-jardueratzen hartuak izatera pasa dira.

IZENA	1994. urtea	1995. urtea	(n-1)etikiko 1996. urtea	(n-1)etikiko 1997. urtea	(n-1)etikiko 1998. urtea	(n-1)etikiko 1999. urtea	(n-1)etikiko 2000. urtea	(n-1)etikiko 2001. urtea	(n-1)etikiko 1994-1999	(n-1)etikiko 1999-2000	(n-1)etikiko 2000-2001	(n-1)etikiko 1994-2001				
Giza balabteak (1)																
Langile fakultateak	1.529	1.522	-0,46%	1.569	3,09%	1.634	4,14%	1.735	6,18%	1.774	2,25%	1.829	3,10%	1.790	-2,13%	17,1%
Osasun langile tituludunak	2.251	2.256	0,22%	2.325	3,06%	2.387	2,67%	2.525	5,78%	2.652	5,03%	2.709	2,15%	2.794	3,14%	24,1%
Osasun langile titulurik gabek	1.680	1.680	0,00%	1.684	0,24%	1.739	3,27%	1.800	3,51%	1.934	7,44%	1.871	-3,28%	1.942	3,79%	15,6%
Administrazioak	939	920	-2,02%	945	2,72%	1.013	7,20%	1.085	7,11%	1.081	-0,37%	1.173	8,51%	1.153	-1,71%	22,8%
Zerbitzu Orokorak	632	599	-5,22%	589	-1,67%	564	-4,24%	574	1,77%	623	8,54%	575	-7,70%	578	0,52%	-8,5%
Langile balokideak, guztira	7.031	6.987	-0,63%	7.112	1,79%	7.337	3,16%	7.719	5,21%	8.064	4,47%	8.157	1,15%	8.257	3,32%	17,4%
Laguntza Espezializatuko langileak	5.020	5.015	-0,10%	5.115	1,99%	5.160	0,88%	5.354	3,76%	5.655	5,62%	5.574	-1,43%	5.759	3,32%	14,7%
Ospitaleetako langileak	4.560	4.493	-1,47%	4.577	1,87%	4.617	0,87%	4.827	4,55%	5.160	6,90%	5.062	-1,90%	5.209	2,90%	14,2%
Laguntza Espezializatuko fakultateak	917	924	0,76%	926	0,22%	926	0,00%	957	3,35%	972	1,57%	929	-4,42%	930	0,11%	1,4%
Fakultateak/1.000 biztanle	2,87	2,84	-1,08%	3,01	6,18%	3,14	4,14%	3,27	4,13%	3,30	0,88%	3,36	2,01%	3,22	-4,33%	12,1%
Langile balokideak, guztira/0he	4,78	4,79	0,19%	4,87	1,86%	5,03	3,23%	5,30	5,28%	5,64	6,52%	5,80	2,81%	5,91	1,95%	23,8%
Ospitaleetako langileak/0he	3,10	3,08	-0,66%	3,14	1,94%	3,17	0,94%	3,31	4,62%	3,61	8,99%	3,60	-0,28%	3,73	3,64%	20,5%
Erroldako biztanleria	532.836	536.192	0,63%	520.574	-2,91%	520.574	0,00%	530.819	1,97%	538.009	1,35%	543.757	1,07%	556.263	2,30%	4,4%
Osasun-baretei indibiduala, 0-14 urte				66.976				68.514	2,30%	68.883	0,54%	70.435	2,25%	72.696	3,21%	
Osasun-baretei indibiduala, 15-64 urte				340.872				347.467	1,93%	351.426	1,14%	358.537	2,02%	365.026	1,81%	
Osasun-baretei indibiduala, gainerakoak				90.485				92.730	2,47%	95.322	2,80%	96.344	1,07%	97.737	1,45%	
Osasun-baretei indibiduala, guztira	466.252	473.150	3,70%	480.852	1,63%	498.343	3,64%	508.711	2,08%	515.631	1,36%	525.316	1,88%	535.459	1,93%	17,4%
OTI biztanleria/Errolda	85,63%	88,24%	3,05%	92,37%	4,68%	95,73%	3,64%	95,84%	0,11%	95,84%	0,01%	96,61%	0,80%	96,26%	-0,36%	12,4%

(1) 1997tik aurrera, Osasunbidetako langilezat hartzen dira Osasun Publikoaren Institutukoak; alegia, 168 pertsona, 2001ean.

Iturria: Egielek prestatua, honakoetan oinarriturik:

- Osasunbidetaren orrit-dazkiak eta Departamentuko beste datu batzuk.
- Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-datuak, SAP eta QMFren bitartezkoak.
- Estatistikako Institutu Nazionalak ataratako biztanleria-kopuruen araberako datuak.
- BP-Gari buruzko datuak, Ekonomia Departamentuak emanak.

VI.2. DATUEN ANALISIA.

Epigrafe honetan eginiko analisiaren irizpena egin behar da txosten honetako III. epigrafearan adierazitako mugak gogoan izanik.

VI.2.1. Ekonomikoak

Datu ekonomikoen analisia egin dugu 2001ean kontabilizatu gabeko kontusailen bidez zuzendutako aurrekontu-betetzearen datuak gogoan hartuz, VI.1 epigrafeko taulan adierazten denez.

1. Osasun Departamentuaren gastuek ehuneko 56ko gorakada izan dute 94-01 epean; Gobernuaren ordea, ehuneko 74koa.

2. Langile-gastuen hazkuntza 10 puntu baxuagoa da Osasun Departamentuan Nafarroako Gobernuaren multzo osoan baino.

3. Ondasun eta zerbitzuen erosketen gastuek izandako hazkuntza (II. kapituluak) 2,5 puntu txikiagoa da departamentuan Gobernuan baino.

4. Ospitale-farmakoek ehuneko 120ko hazkuntza izan dute epe horretan, eta 2001ean 3.579 milioi pezetakoak izatera iritsi ziren.

5. Epe horretan, errezeten ordainketak ehuneko 84ko gorakada izan du. 2001ean 16.917 milioi pezetako zenbatekoa izan du, eta biztanle bakoitzeko zenbatekoa 30.394 pezetakoa izan da.

6. Inbertsioen kapituluak (gastua 3.591 milioi-koa izan da 2001ean) ehuneko 81eko hazkuntza izan du 1994tik.

7. Barne produktu gordinari dagokionez, Departamentuaren gastua epe horretan ehuneko 4,7 eta 4,8 bitartekoa izan da.

8. 1. eranskinetako taulatik ondorioztatzen denez, urte baten eta horren aurrekoaren artean izandako gastu-gehikuntza betiere handiagoa izan da hasierako aurrekontuaren eta aurreko urteko aurrekontu-betetzearen artekoa baino. Batez besteko aldea ehuneko 3,7koa izan da.

Horrela, 2001eko hasierako aurrekontua ehuneko 84 handiagoa da 1994ko aurrekontu-betetzea baino. Bitartean, gastu errealak ehuneko 97,4ko gorakada izan du.

VI.2.2. Jarduerari buruzkoak

9. Oinarrizko osasun laguntzako kontsultetan ehuneko 6,5eko gorakada izan da 1994-2001 epean. Honela xehekatzen da: ehuneko 2,5 medikuntza orokorrekoetan, eta ehuneko 36,6 pediatriakoetan.

Azpimarratzekoa da 1998an izandako bilakaera; izan ere, bi kontsulta-motetan gorakada nabar-

mena izan da; ehuneko 15 eta 19koa, hurrenez hurren; 1999an, ordea, medikuntza orokorrekoek ehuneko 18ko beherakada izan dute, eta pediatriakoek ehuneko 6 igotzen segitzen dute.

Oinarrizko Osasun Laguntzako kontsultek, 1.000 biztanleko, ehuneko 2ko gorakada izan dute epe horretan, eta 2001ean 5.001 bisita izan ziren 1.000 biztanleko.

10. Laguntza espezializatuko kontsultek epe horretan ehuneko 28,8ko gorakada izan dute, eta 2001ean 870.818 izan ziren. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da lehen kontsultek ehuneko 37,9ko gorakada izan dutela. 1.000 biztanle bakoitzeko kontsulta-kopuruei erreparatuz gero, 1.565 izan dira, eta epe horretan izandako hazkuntza ehuneko 23,4koa izan da; hazkuntza hori gertatzen ari zen aldi berean, ehuneko 15,5eko beherakada izan da lehenaz ondoko kontsulten eta lehen kontsulten arteko erlazioan.

11. Oinarrizko osasun laguntzako eta laguntza espezializatuko kontsulten guztizko kopurua, fakultatiboek dagokienez, 2.040koa izan da 2001ean, eta aipaturiko epean alde batetik osotara ehuneko 5,1eko beherakada izan da, eta bestetik, bilakaera irregularra.

12. 2001ean, 53.098 ospitaleratze izan dira. 1994etik hazkuntza ehuneko 11,6koa izan da. Biztanleek dagokienez, haien kopurua ehuneko 6,9 hazi da; 2001ean 95 ospitaleratze izan dira 1.000 biztanleko, nahiz eta adierazi behar den 1997an 100 izatera iritsi zirela.

13. Egonaldiek ehuneko 2,3ko beherakada izan dute epe horretan, eta 2001ean 383.839 izan ziren, batez besteko egonaldiaren beherakadaren ondorioz.

14. Ebakuntzek, hala programatuek nola presakoek, ehuneko 44ko gorakada izan dute epe honetan, eta 2001ean 42.503 izatera iritsi ziren; hau da, 76 ebakuntza 1.000 biztanle bakoitzeko.

15. Ebakuntzak eta laguntza espezializatuko fakultatiboak uztartuz, 94an 32 ebakuntza egitetik 2001ean 46 egiterako bidea egin da. Alegia, ehuneko 42ko gorakada izan dute.

16. Aurre egin zaien larrialdien kopurua etengabe hazi da; epe horretan, ehuneko 29,4ko neurrian. 2001ekoak 239.195 izan ziren, hau da, 430 larrialdi 1.000 biztanle bakoitzeko.

17. Ohe-kopuruak (akutuenak) etengabeko beherakada pairatu du; zehazki, aztertutako epean ehuneko 5,2koa izan da, 1994an 1.472 izatetik 2001ean 1.396 izatera pasa baitira; beraz, kopu-

rua iritsi da 1.000 biztanle bakoitzeko 2,51 ohekoa izatera.

18. Laguntza espezializatuaren jarduera pisu-unitatetan aztertuz, alegia, laguntza espezializatu-ko jarduera guztia koste-unitate homogeenaren eraldatuz, epe honetan jarduerak ehuneko 30,4ko gorakada izan du, eta batez besteko pisu-unitate-aren kostuak, berriz, ehuneko 16,2koa. Horrela, 2001ean 334.985 pezetakoa izatera iritsi da.

VI.2.2. Baliabideei buruzkoak

III. epigrafean adierazten den bezala, baliabideei buruzko kalkuluak oinarri gisa O-NOZeko langileria hartuz egiten dira.

19. Langile fakultatiboak 1.790 pertsona ziren 2001ean. Beraz, 1994ko kopuruarekiko % 17,1eko gorakada izan da. Osasun langile titulu-dunek hazkuntza handiagoa agertzen dute, % 24,1ekoa, eta 2.794 dira; bestalde, titulurik gabeko osasun langileak 1.942 dira, eta haien gorakada % 15,6koa izan da.

20. 2001ean, langileen guztizko kopurua 8.257 pertsona baliokidek osatzen zuten (hau da, urte osoan zehar lan egiten duten pertsonak), eta 1994ko kopuruarekiko hazkuntza ehuneko 17,4koa zen. Ospitaleetan 5.209 pertsonak lan egiten zuten; hau da, 1994an baino % 14,2 gehiagok.

21. 2001ean, ohe bakoitzeko 5,91 langile baliokide zeuden, eta 3,73 ospitale-langile. Haien gehikuntza ehuneko 23,8 eta 20,5ekoa izan zen, hurrenez hurren.

22. Osasun-txartelen kopurua epe horretan pasa da 456.252koa izatetik 535.459koa izatera, gehikuntza % 17,4koa izanik. 1994an erroldako populazioaren ehuneko 85,63 hartzen zuen barnean, eta 2001ean ehuneko 96,26.

Erroldaren arabera, urte horietan biztanleriak ehuneko 4,4ko hazkuntza izan du, eta 2001ean 556.263 pertsonakoa izatera iritsi zen.

VII. ALDERAKETA BESTE ZENBAIT ERKIDEGOREKIN.

Insaludek prestaturiko adierazle batzuek eskaintzen dituzten datuak hartu ditugu, 1994-2001 epean osasun laguntzaz Insalud arduratzen zeneko erkidegoei buruzkoak, eta Nafarroakoekin alderatu ditugu. Iritzia ematerakoan, gogoan izan behar da datu horiek jatorri ezberdinak dituztela.

Aurkezturiko adierazleak hauexek dira:

- Oheak, 1.000 biztanleko.
- Ospitaleratzeak, 1.000 biztanleko.

- Kontsultak, 1.000 biztanleko.

- Larrialdiak, 1.000 biztanleko.

- Ebakuntzak, 1.000 biztanleko.

- Eragiketa arrunten ondoriozko per capita gastua.

II. eranskinean, adierazle horiei dagozkien txiki-ak agertzen dira, urteen eta erkidegoen arabera antolatuta.

Datuak aztertzean ez ditugu aintzat hartu Ceuta eta Melillakoak, horiek esanguratsuenak badira, hiri autonomiadun horien berezitasuna dela-eta.

23. 1994an, Nafarroak 2,76 ohe zeuzkan 1.000 biztanleko, eta Insaludek 2,56. 2001ean, Nafarroako ohe-kopuruak ehuneko 9ko beherakada izan du, eta Insaludek, berriz, ehuneko bateko igoera izan du. Horrela, egoera aldatu egin da, eta 2001ean Nafarroak Insaludek baino ohe gutxiago ditu.

Horrela, 2001ean Insaludek 2,58 ohe zituen 1.000 biztanleko, eta Asturias zen kopururik handiena zeukan erkidegoa (3,16). Balear Uharteak ziren kopuru txikienekoak (1,58), eta Nafarroak 2,51 ohe zituen.

24. Laguntza espezializatuko kontsulten kopurua 1.000 biztanleko, 1994an, hauxe zen: Nafarroan 1.269, eta Insaluden 1.439. Epe horretan, Nafarroak ehuneko 23ko hazkuntza izan du, eta Insaludek ehuneko 10ekoa; horren ondorioz, 2001ean kopuruak ia-ia berdindu egin dira.

Horrela, Insaludek 1.588 egin ditu; Madrilgo Erkidegoa da gehien egin dituen (1.987), eta Balearrak dira gutxien egin dituztenak (1.161). Nafarroan 1.565 kontsulta egin dira.

25. Ospitaleratzeak 1.000 biztanleko: 1994an Nafarroa Insaluden gainetik zegoen, 89,30 versus 76,47, eta epe horretan hazkuntza txikiagoa izan du: ehuneko 7, versus Insaluden ehuneko 14.

Horrela, Insaludek 86,85 ospitaleratzeri aurre egin die 1.000 biztanleko, eta Asturiasen egiten dira gehien (100,5), eta Balearretan gutxien (77,69). Nafarroan, berriz, 2001ean 95,45 ospitaleratze izan dira 1.000 biztanleko.

26. Larrialdiei dagokienez, bilakaera ospitaleratzeenaren antzekoa izan da. 1994an, Nafarroan 346,94 izan ziren; beraz, Insaluden baino gehiago, han 298,03 izan baitziren. Nahiz eta epe horretan Insalud gehiago hazi den (ehuneko 34 versus ehuneko 24), 2001ean Nafarroak 430 larrialdiri aurre egin zien, eta Insaludek 399,39ri. Murtzia izan zen gehien izandako erkidegoa

(529,67) eta Gaztela eta Leon gutxien izandakoa (330,46).

27. 1.000 biztanleko ebakuntzek zer-nolako bilakaera izan duten aztertzen badugu, ikusiko dugu 1994an Nafarroan eginiko 50,06ak Insaludeko 52,74ak baino gutxiago zirela. Harrezkero, epe horretan Nafarroaren hazkuntza, ehuneko 53, Insaludek izandakoa (ehuneko 9) baino askoz ere handiagoa da; horrela, bada, 2001ean Insaluden gainetik egotera iritsi da (76,41 versus 57,33). Azken lurralde horretan, Errioxako erkidegoan egin da ebakuntzarik gehien (66,12), eta Balearretan gutxien: 1.000 biztanleko 45,57 ebakuntza.

28. Eragiketa arrunten ondoriozko per capita gastuari dagokionez, hazkuntza oso antzekoa da; ehuneko 42 Insaluden eta ehuneko 40 Nafarroan. Beraz, gastuan dagoen aldea mantentzen da, Nafarroaren mesedetan. Gastua 2001ean 113.661 pezetakoa izan da Insaluden; Aragoiko 123.144 pezetan eta Balearretako 102.143 pezetan tarte horretan kokatua. Foru Komunitatearen kasuan, 143.789 pezetakoa izatera iritsi da.

Dena den, esan behar da autonomia erkidego horien aurrekontuetan osasun-alorrerako kontusailak sartu direla, nahiz eta arlo horretako esku-menak bereganaturik ez izan.

VIII. BALIZKO JOKABIDEEI BURUZKO IRADOKIZUNAK

Bestalde, txosten honetarako eskaera egitean adierazi zen jakin nahi zela "zer aukera dituen Osasun departamentuak bere proposamen eta jarduketa planetan hartzen ari den konopromisoak aurrekontuetan sartu ahal izateko".

IV. epigrafean adierazi bezala, aurrekontu-baliabideen esleipena departamentuz kanpoko erabakia da, eta Parlamentuak berretsia; horrela, bada, departamentuak baliabideak aske uzteko dituen aukerak oinarriturik daude kudeaketaren hobekuntzan edo hark bere jardueratik dirusarrera berriak sortzeko izan dezakeen ahalmenean.

Besteak beste osasun-prestazioen hartzaileen gehikuntza, batez besteko bizi-adinaren gorakada, aurrerapen teknologikoak eta herritarren kontzientzia eta eskakizun-maila handiagoak direla eta, azken urteotan osasun arloko gastuak gora egin du, eta badirudi horretarako joera dagoela.

Horrela, Osasun departamentuaren gastua (85.000 milioi) gutxi gorabehera Nafarroako Gobernuarenaren % 22 izatera iritsi da, eta departamentu horretako langile-gastuak (47.000 milioi) Nafarroako Gobernuak izandako langile-gastuaren % 42 hartzen du.

Gainera, osasun arloan kontuan hartu behar da ezen, beste zerbitzu publiko batzuetan ez bezala, administrazioak oso ahalmen txikia duela eskarian eragiteko, edo betiere zeharka eragiten duela. Hori kanpo-faktore bat da, eta, kasu askotan, zaila da aurreikusten.

Horregatik, jarraian iradokizun edo proposamen batzuk aurkeztuko ditugu, eta horien bidez adierazten da departamentuak zein arlo edo jardueratan eragin dezakeen, baldin eta baliabideak aske uztea nahi badu, dela prestazioak ugartzeko, dela osasun arloko gastua murrizteko. Ekintza horiek hiru arlotakoak izan daitezke:

VIII.1. GASTUAN ERAGITEA

1. Gaur egungo osasun sistemaren antolaketa-eredua aldatzeko aukera aztertzea, eta egon litezkeen eskala-ekonomiak (adibidez, ospitaleen antolaketan, batez ere Iruña aldean) aprobetxatzeko moduak aztertzea. Ildo horretatik, Iruñerriko ospitale-zerbitzuak berrantolatzei aukera eta zerbitzuetan zenbait bikoizketa saihestean horrek ekar litezkeen aurrezpenak aztertu beharko liriateke.

2. Baliabide gutxiago erabiltzea ahalbidetuko duten aurrerapen teknologiko guztiak ezartzea.

Gai honetan azpimarratu behar da aurrerapen teknologikoek gastuak kasu askotan igoarazten dituztela, batzuetan oso garestiak diren teknika berrien bitartez ordura arte ezinezkoak ziren tratamenduei ekiteko modua eskaintzen baitute.

3. Sektore publikoak eskaini beharreko prestazioak mugatu, murriztu edo ez gehitzea. Gogoan izan bedi txosten honetako V. epigrafean osasun arloko zerbitzuak jasotzeko eskubideari buruz adierazitakoa. Osasun zerbitzuak emateko bete-beharra erregelamendu-mailako araudian ezarrita dago, eta Nafarroa, legez, Estatuak adierazten dituenak ez besterik ematera dago behartua, nahiz eta praktikan gutxiengo horiek gaintzen dituen: adibidez, ernalketa lagunduko teknikak eskaintzen ditu, edo etorkinei haien egoera kontuan izan gabe osasun-laguntza ematen die.

4. Kanpo-enpresei erositako ondasun edo zerbitzuez hornitzeko sistemetan egin beharreko balizko aldaketak aztertzea, baldintza hobekak lortzeko xedez.

5. Gastuen zenbatekorik handienak dituzten kontusailetan gastu horien eraginkortasuna eta efizientzia aztertzea. Horien artean nabarmentzen dira langileria-gastuak (46.656 milioi) eta errezetenak (16.040 milioi). Logikoa denez, balizko aurrezpenik handienak kontusailik garrantzitsuenetan lortzekoak dira.

Langileria-gastuak murriztea posible izanen litzateke langile-kopurua nabarmen jaitsiz soilik. Gogoan izan behar da ezen, adibidez, 2001ean langile-kopurua % 1,23 gehitu zela baina gastuek % 7,9ko gorakada izan zutela.

Farmakoen gastua jaisteak behartu dezake nahitaezko osagai aktiboa daukaten farmakoen eraginkortasun eta kostuaren azterketa egitera, bai eta hornigaiak murriztearena ere.

6. Gerora egin beharreko tratamenduak saihestu edo alda ditzaketen neurri batzuen eraginkortasuna eta ondorio ekonomikoak aztertzea, hala nola prebentzio jarduerenak eta baita "medikuntza alternatibo" deritzenetako teknika edo prozesuak erabiltzearenak ere. Ildo horretan, baliagarria litzateke "defentsarako medikuntza" deritzonaren kostuaren balioespen bat izatea; hala deitzen zaio gerora aurkez litezkeen demanden arriskua dela-eta egin daitezkeen tratamendu edo proba guztien multzoari.

VIII.2. DIRUSARRERAN ERAGITEA

7. Farmako-kontsumoaren alorrean gaur egun dagoen finantzaketa modua aldatzeko aukera aztertzea. Gaur egun, erretiratuek ezer ordaindu behar izan gabe eskuratzen dituzte, eta gainerako onuradunek kostuaren % 40 ordaintzen dute.

8. Ematen diren zerbitzuetatik hertsiki osasun alorrekoak ez direnetarako (garraioa, elikadura, ostalaritza eta abar) tasak ezartzea.

9. 2003ko urtarrileko Hitzarmen Ekonomikoa sinatu denez geroztik, Nafarroari dagokio hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmentaren gaineko zergaren ordainarazpena. Zerga hori abenduaren 27ko 24/2001 Legearen bitartez sortu zen. Lege horren arabera, zerga horren bidez eskuratutako dirusarrerak osoki lotuko zaizkio osasun arloko gastuak finantzatzeari.

VIII.3. BESTE ALDERDI BATZUETAN ERAGITEA

Argi dago edozein administrazio publikoren zerbitzuei buruzko iritzia hein handi batean erabiltzaileak haiei buruz dituen igurikimenen baitan dagoela.

Herritarrak ahalik eta informazio gehien behar du bere igurikimeneke errealistak eta osasun administrazioaren gaitasunaren araberekoak izan behar badute.

Halaber, informazio horrek balio izanen du osasun sistemako kudeatzaile eta langileak euren

erabakien ondorioez hobeto jabetu daitezten. Izan ere, osasun sarean, gainerako antolamendu publikoetan ez bezala, gastuak egiteko ahalmena daukaten pertsonen kopurua oso handia da.

10. Osasun sistema doakoa izatearen ideia, gizartean aski zabaldua, aldatzea, eta haren ordeztaraztea osasun zerbitzuen kostua, berez haien erabiltzaileei pasatu beharko litzaiekeen, herritar guztiek jasaten dutela, zergak ordainduz. Prozesuen kostuei buruzko informazioa osasun sistemaren kudeatzaileei ere helarazi behar zaie.

11. Gizarteari helarazi behar zaio honako ideia, alegia, osasun arloko gastuek gehieneko muga bat daukatela, aurrekontuetako dirusarreraren araberekoa, eta, beraz, emandako zerbitzuak ezin direla mugarik gabekoak izan. Hau da, ahalegina egin behar da gizartearen igurikimen gero eta handiagoek eta finantzaketa-ahalmenek bat egin dezaten.

12. Osasun zerbitzuetara bideraturiko baliabideen zenbatekoa dela-eta, beharrezkoa da kalitate-adierazle batzuk izatea, eginiko gastuaren gizarte-errentagarritasuna neurtu ahal izateko. Horrela, jakin beharko litzateke zein ehunekotan igotzen den osasun sistemaren kalitatea haren aurrekontuari gehituriko moneta-unitate bakoitzeko, edo ea per capita gastu bat ehuneko jakin batean handiagoa den beste erkidego batekoa baino, ehuneko horretan bertan eragiten ote duen kalitateari dagozkion alderdietan.

Begi-bistakoa da hemen aurkezturiko proposamenetako batzuek iradoki dezaketela emandako zerbitzuen kantitate edo kalitatean aldatetaren bat egin dadila. Hain zuzen ere, proposamen horietako batzuk onesten baldin badira, eta sistemaren produktibitatea gehituz orekatzen ez badira, gerta daiteke zerbitzua okerragoa izatea edo gizartearen eskakizunak ez asetzea, eta, areago, osasun arloko gastuaren ekitatean eragitea.

Hori guztia dela-eta, ezinbestekoa da osasun arloko proiektu berriek zeinek bere azterlan ekonomikoa izatea, eta gastuak areagotzea ekarriko duen inolako zerbitzu-gehikuntzarik ez egitea, baldin eta departamentuak horretarako finantzaketa esleitu gabe badauka.

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan hau egitearen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2003ko otsailaren 20an

Jarduneko lehendakaria: Luis Ordoki Urdazi

1. eranskina. Osasun-aurrekontuaren aldakuntza 1991-2002 epean.

Urtea	Hasierako aurrekontua	Gauzatua	Hasierakoa (n+1)/ gauzatua (n), aldea %	Gauzatua (n+1)/n	Aldea
1991	43.114.178	45.029.917	-		
1992	47.686.981	50.516.374	% 5,90	% 12,2	% 6,3
1993	52.434.061	55.082.343	% 3,80	% 9,0	% 5,2
1994	53.115.296	56.854.741	% -3,57	% 3,2	% 6,8
1995	57.510.293	58.247.244	% 1,15	% 2,4	% 1,3
1996	61.002.806	61.714.758	% 4,73	% 6,0	% 1,2
1997	65.793.983	66.809.079	% 6,61	% 8,3	% 1,6
1998	69.123.576	71.725.084	% 3,46	% 7,4	% 3,9
1999	73.289.936	76.732.340	% 2,18	% 7,0	% 4,8
2000	76.640.944	82.424.231	% -0,12	% 7,4	% 7,5
2001	82.945.083	85.074.212	% 0,63	% 3,2	% 2,6
2002	86.931.798	-	% 2,18	-	-

Iturria: Egileek prestatua, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-betetzeetan oinarriturik

II. eranskina. Insalud-Nafarroa adierazleen alderaketa, 1994-2001

II.1. Oheak, 1.000 biztanleko

Autonomia erkidegoa	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	Indizea/94
Aragoi	2,80	2,81	2,81	2,81	2,82	2,82	2,75	2,75	98
Asturias	3,10	3,09	3,15	3,27	3,27	3,26	3,16	3,16	102
Balearrak	1,82	1,83	1,83	1,82	1,90	1,88	1,92	1,88	103
Kantabria	3,05	3,56	3,56	3,56	3,56	3,56	2,93	2,93	96
Gaztela-Mantxa	2,48	2,60	2,56	2,47	2,40	2,41	2,39	2,38	96
Gaztela eta Leon	2,53	2,55	2,53	2,60	2,58	2,57	2,53	2,50	99
Extremadura	2,81	2,75	2,75	2,73	2,72	2,72	2,72	2,72	97
Madril	2,52	2,52	2,67	2,66	2,73	2,68	2,63	2,62	104
Murtzia	2,06	2,25	2,43	2,34	2,35	2,35	2,38	2,39	116
Errioxa	2,60	2,54	2,56	2,38	2,41	2,46	2,46	2,78	107
Ceuta	2,41	2,41	2,41	2,37	2,37	2,37	2,37	2,37	98
Melilla	3,04	3,04	3,04	2,89	2,89	2,89	2,89	2,89	95
Insalud, guztira	2,56	2,61	2,66	2,65	2,66	2,65	2,59	2,58	101
Nafarroa	2,76	2,72	2,80	2,80	2,74	2,66	2,59	2,51	91

Iturria: Egileek prestatua, honakoetan oinarriturik:

– Nafarroako datuak, Osasunbidearen oroit-idazkien arabera.

– Gainerako autonomia erkidegoak, Insaluden "Asistencia especializada evolución indicadores 1991-2001" liburutik

II.2. Laguntza espezializatuko kontsulta/1.000 biztanle

Autonomia erkidegoa	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	Indizea/94
Aragoi	1.550	1.545	1.617	1.649	1.700	1.718	1.696	1.718	111
Asturias	1.359	1.359	1.396	1.479	1.467	1.500	1.531	1.567	115
Balearrak	1.044	1.010	1.074	1.010	1.068	1.090	1.119	1.161	111
Kantabria	1.207	1.137	1.237	1.239	1.253	1.268	1.303	1.365	113
Gaztela-Mantxa	1.150	1.135	1.266	1.267	1.295	1.332	1.348	1.351	117
Gaztela eta Leon	1.232	1.151	1.237	1.277	1.295	1.307	1.328	1.356	110
Extremadura	1.068	1.025	1.092	1.124	1.185	1.209	1.239	1.303	122
Madril	1.860	1.832	1.883	1.910	1.917	1.948	1.978	1.987	107
Murtzia	1.543	1.523	1.626	1.501	1.490	1.517	1.614	1.664	108
Errioxa	1.340	1.267	1.393	1.089	1.204	1.227	1.274	1.421	106
Ceuta	1.394	1.508	1.544	1.475	1.438	1.331	1.201	1.372	98
Melilla	1.038	1.087	1.182	1.270	1.292	1.332	1.350	1.333	128
Insalud, guztira	1.439	1.405	1.481	1.486	1.508	1.533	1.559	1.588	110
Nafarroa	1.269	1.270	1.355	1.375	1.390	1.441	1.507	1.565	123

Iturria: Egileek prestatua, honakoetan oinarriturik:

– Nafarroako datuak, Osasunbidearen oroit-idazkien arabera.

– Gainerako autonomia erkidegoak, Insaluden "Asistencia especializada evolución indicadores 1991-2001" liburutik.

II.3. Ospitaleratzeak/1.000 biztanle

Autonomia erkidegoa	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	Indizea/94
Aragoi	85,64	81,76	85,61	86,72	87,12	88,34	89,49	92,22	108
Asturias	85,14	85,72	88,67	94,83	94,96	96,84	99,84	100,50	118
Balearrak	63,56	65,90	69,64	70,54	72,52	74,73	77,84	77,69	122
Kantabria	76,88	80,75	89,37	89,93	89,40	89,55	84,57	85,39	111
Gaztela-Mantxa	76,49	79,26	82,44	80,91	81,38	82,89	85,12	85,89	112
Gaztela eta Leon	78,79	77,84	83,34	85,97	87,03	87,65	89,01	88,62	112
Extremadura	81,56	82,00	86,14	85,02	86,47	86,72	87,62	87,50	107
Madril	69,01	67,93	74,78	73,87	73,99	76,18	78,28	79,90	116
Murtzia	78,07	80,91	91,83	87,91	87,13	91,20	94,94	95,46	122
Errioxa	94,91	93,11	97,04	85,65	88,02	91,11	88,95	96,70	102
Ceuta	110,29	115,08	116,22	111,95	112,67	106,87	98,71	98,23	89
Melilla	92,07	94,75	95,14	93,66	92,64	96,15	104,91	110,18	120
Insalud, guztira	76,47	76,51	82,00	82,09	82,60	84,21	85,88	86,85	114
Nafarroa	89,30	91,98	99,08	99,83	97,55	97,30	97,26	95,45	107

Iturria: Egileek prestatua, honakoetan oinarriturik:

- Nafarroako datuak, Osasunbidearen oroit-idazkien arabera.
- Gainerako autonomia erkidegoak, Insaluden "Asistencia especializada evolución indicadores 1991-2001" liburutik.

II.4. Larrialdiak/1.000 biztanle

Autonomia erkidegoa	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	Indizea/94
Aragoi	301,75	317,24	325,04	338,73	339,16	348,45	347,38	361,69	120
Asturias	277,36	304,12	310,48	339,07	337,90	347,41	359,85	366,51	132
Balearrak	252,15	262,38	272,93	289,04	311,24	329,27	350,20	364,84	145
Kantabria	324,83	397,28	413,73	429,74	436,08	458,75	468,92	489,65	151
Gaztela-Mantxa	260,74	292,81	312,94	315,83	324,70	333,06	347,88	364,74	140
Gaztela eta Leon	264,17	280,15	289,23	302,68	313,54	317,11	321,96	330,46	125
Extremadura	296,55	300,03	309,55	323,58	334,98	344,62	357,02	369,86	125
Madril	328,73	345,16	356,16	370,87	391,22	399,50	415,56	439,67	134
Murtzia	332,43	354,41	398,92	409,80	418,90	469,17	498,88	529,67	159
Errioxa	343,03	370,55	381,42	323,74	361,73	388,16	392,69	392,77	115
Ceuta	469,57	521,11	571,29	555,99	587,03	636,24	674,31	707,79	151
Melilla	467,19	530,57	577,88	583,91	583,54	575,53	592,34	706,88	151
Insalud, guztira	298,03	318,59	332,20	344,74	357,30	369,29	382,06	399,39	134
Nafarroa	346,94	375,68	397,68	410,74	420,18	423,20	426,45	430,00	124

Iturria: Egileek prestatua, honakoetan oinarriturik:

- Nafarroako datuak, Osasunbidearen oroit-idazkien arabera.
- Gainerako autonomia erkidegoak, Insaluden "Asistencia especializada evolución indicadores 1991-2001" liburutik.

II.5. Ebakuntzak/1.000 biztanle

Autonomia erkidegoa	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	Indizea/94
Aragoi	49,45	44,00	49,76	51,81	53,63	51,09	52,73	55,21	112
Asturias	63,96	62,29	68,19	61,14	59,58	57,38	59,33	61,44	96
Balearrak	44,26	42,80	48,11	48,73	45,31	44,46	45,07	45,57	103
Kantabria	36,07	39,22	48,74	48,73	49,85	48,25	49,70	53,67	149
Gaztela-Mantxa	47,58	40,71	47,31	49,27	50,18	50,93	51,61	54,45	114
Gaztela eta Leon	46,44	37,91	44,06	48,69	51,25	50,33	51,70	52,44	113
Extremadura	48,68	43,71	50,15	50,78	53,14	52,68	53,48	53,54	110
Madril	61,16	54,68	58,34	61,29	63,89	62,50	63,53	64,63	106
Murtzia	53,34	54,21	62,00	55,26	57,67	55,74	58,94	57,92	109
Errioxa	61,51	57,82	69,31	59,15	61,50	65,00	51,54	66,12	107
Ceuta	48,85	48,66	43,69	41,40	46,67	37,95	33,13	37,66	77
Melilla	51,78	43,27	44,58	44,23	51,01	45,19	52,07	55,48	107
Insalud, guztira	52,74	47,54	53,17	54,21	55,86	54,76	55,80	57,33	109
Nafarroa	50,06	52,53	66,16	74,67	71,23	71,52	76,15	76,41	153

Iturria: Egileek prestatua, honakoetan oinarriturik:

– Nafarroako datuak, Osasunbidearen oroit-idazkien arabera.

– Gainerako autonomia erkidegoak, Insaluden "Asistencia especializada evolución indicadores 1991-2001" liburutik.

II.6. Eragiketa arrunten ondoriozko per capita gastua.

Autonomia erkidegoa	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	Indizea/94
Aragoi	85.008	91.704	98.031	101.675	107.860	115.154	123.144	145
Asturias	84.421	91.759	97.854	100.868	107.753	114.637	122.394	145
Balearrak	68.844	73.526	79.623	85.161	86.184	93.520	102.143	148
Kantabria	82.105	90.323	97.587	101.525	106.805	113.014	121.498	148
Gaztela-Mantxa	74.289	80.712	88.616	91.476	94.742	101.060	108.991	147
Gaztela eta Leon	77.230	82.578	88.889	91.610	98.433	104.912	111.310	144
Extremadura	78.936	84.701	93.006	96.314	100.885	107.315	114.840	145
Madril	84.116	89.710	94.785	96.710	101.332	106.571	112.432	134
Murtzia	72.429	81.673	90.166	94.868	95.889	104.899	115.082	159
Errioxa	72.321	76.527	82.492	88.713	94.670	98.994	106.511	147
Ceuta	99.190	107.317	112.799	120.449	121.498	125.251	133.569	135
Melilla	113.213	120.066	128.131	128.917	127.072	132.715	145.993	129
Insalud, guztira*	79.926	86.091	92.480	95.486	100.141	106.456	113.661	142
Nafarroa	102.621	104.612	114.359	122.995	128.459	135.916	143.789	140

* Insaluden gastua jasotzen du soilik, eta ez erkidegoek euren aurrekontuen kargura egiten dutena

Iturria: Egileek prestatua, honakoetan oinarriturik:

– Nafarroako datuak, Osasunbidearen oroit-idazkien arabera.

– Gainerako autonomia erkidegoak, Insaluden "Asistencia especializada evolución indicadores 1991-2001" liburutik.